



## "Leirek eta biok elkarregaz jokaturiko lehenengo txapelketa izan da; oso ondo elkar hartu dugu"


**Otxandio** • Ainhoa Ruiz de Infantek binakako pilota txapelketa irabazi du Leire Galeanogaz batera. Aspaldian partiduetan zein entrenamenduetan asko gozaten dabilela dio, eta txapelak horren isla dira. • **2-3**

## Donien Atxa jasota, jaiak eztanda egingo du bihar Traña-Matienan



**Abadiño** • Bihar, Donien Atxa jasota eta txosnetako txupinazoa jaurtita hasiko dituzte San Prudentzio jaiak Traña-Matienan. 12:00etan lehertuko da festa. Abadiñarek mozorrotuta egingo diete ongi etorria jaiei. • **10**

## Durangoko XIV. Dantza Egunean 500 dantzari irtengo dira kalera



**Dantza** • L'Atelier dantza eskolak eta Durangoko Udalak elkarlanean antolatu dute Dantza Eguna, beste urte batez; XIV. edizioa izango da aurtengoa. Egun osoko egitaraua prestatu dute eta azaldu dute 500 bat lagun irtengo direla dantzatzerara. Egitaraua 10:00etan hasiko da, eta ballet, dantza moderno eta dantza urbano erakustaldiak egingo dituzte. • **19**

## Herri galdeketa Zelaietako mugikortasunaz erabakitzeko

**Abadiño** • Maiatzaren 6tik 12ra Zelaietako mugikortasunari buruzko herri galdeketa egingo dute Abadiñon. Herritarrek bost proposamenen artean aukeratu ahal izango dute. Udaletik parte hartzeko deia egin diete herritarrei. • **10**



[www.iurretalhi.eus](http://www.iurretalhi.eus)  
idazkaritza@iurretalhi.eus  
Tel.: 944 66 88 00

### ERDI MAILA

- Administrazio Kudeaketa
- Mekanizazioa
- Ibilgailuen Elektromekanika
- Mendekotasun-egoerandauden Pertsonentzako Arreta
- Telekomunikazio Instalazioak

### GOI MAILA

- Administrazio eta Finantzak
- Automozioa
- Mantentze-lan Elektronikoa
- Produktzioaren Programazioa

**AURREMATRIKULA** (ezinbestekoa matrikula plaza lortu ahal izateko)  
Maiatzak 6tik 24ra arte





**Ainhoa Ruiz de Infante Kortazar**

Pilotaria

OTXANDIO | 2001

## “Asko gozatzan nabil pilotan, bai partiduetan eta baita entrenamenduetan ere”

Ainhoa Ruiz de Infante otxandiarrak Ados elkartearen binakako pilota txapelketa irabazi berri du Leire Galeanogaz batera. Antzuolan jokaturiko finalean 22-17 menderatu zituzten Maddi Barrocal eta Naroa Agirre

**PILOTA • JOSEBA DERTEANO**

Joan zen zapatuan, Antzuolako pilotalekua lepo bete zen finala ikusteko, eta pilotariek ez zitoten ikusminari hutsik egin. Oso final gogor eta orekatua jokatu zuten. Hamar berdinketa izan ziren. Irabazleek 15nako berdinketaren ondoren hartu zuten erabakiorra izango zen aldetxoa.

**Final gogorra jokatu zenuen. Hamar berdinketa izan ziren partiduan zehar.**

Oso partidu gogorra izan zen, tentsio handikoa. Eurak erasokorrage

hasi zirela esango nuke eta gu piloteoan eusten ahalegindu ginen. Berdinketa asko egon zen, bai. Asko jota, tanto biko edo hiruko alde egon zen batzuen edo bestean alde. 15nakoan izan zen azken berdinketa. Orduan apurtu zen partidua apur bat. Jokoa gehiago sartzen ahalegindu nintzen eta sakean ere asmatu nuen.

**Hain partidu gogorra jokatu, nekea faktore bat izan zen?**

Ez nuke esango. Nire ustez, alde batetik, aurkariek hutsegiteak egin zituzten arriskatzera. Gu,

ostera, partiduan gehiago sartu ginen eta tantoak egiteak konfiantza eman zigun.

**Ligaxkan beste birritan jokatu zeundeten euren kontra: lehenengo ozta-ozta galdu eta bigarrena irabazi. Aurkariak ezagutzeak lagundu egin zizuen finalera begira?**

Dudarik barik. Bai eurek eta bai guk bagenekien zelan jokatu behar genuen. Ligaxkan, lehenengo partidua 22-21 galdu genuen eta halako final gogorra espero genuen. Orduan hutsegite gehiago egin genuelako galdu genuen. Bigarrena errazago irabazi genuen, baina Naroa Agirrek eskuetako min handia izan zuen eta partidu hartan faktore erabakiorra izan zen.

**Laugarren tokian sailkatu zineten azken fasera. Ez zineten faborito**

**izango, beharbada, baina sasoi egokian heldu zarete.**

Bai. Azkenean hain txapelketa luzea esperientzia berri bat izan da. Pentsa, abenduan hasi ginen. Leirek eta biok elkarregaz jokatzan genuen lehenengo txapelketa zen. Zeretik hasi ginen. Baina txapelketa luzea izateak sarritan elkarregaz entrenatzeko eta partidurik partidu bikote lez sendotzeko aukera eskaini digu. Garapena emaitzei begiratuta ikusten da. Lehenengo itzulian galduriko partidu kopurua irabazi egin dugu bigarren itzulian, eta galdurikoak gutxigaitik galdu ditugu. Azkenerako, oso ondo elkar hartu dugu.

**Antzuolako pilotalekua lepo bete zen finalak ikusteko, tartean etxeko edo gertuko pilotariak zeudelako ere bai. Esaterako, Galeano antzuolarra da. Edozelan ere, pozgarria da finalak ikusmina eragitea.**

Bai, jakina. Ikusmin handia zegoen, Leire antzuolarra izan zein ez. Otxandiotik ere joan zen jendea. Gainera, sarrera ez zen doakoa. Ligaxkakoak bost euro izan dira eta finalekoa hamar. Eta, hala ere, bete egin zen. Sarrerak salgai ipintzeak

eta zaleek ondo erantzuteak nabarmendu egiten du Ados elkarteak kirol ikuspegitik ez ezik berdintasunaren bidean ere eginiko apustua.

**Korrika Otxandiotik pasatu zen egunean ligaxkako partidu bat Otxandion bertan jokatu zenuen. Zelan gogoratzen duzu?**

Oso egun polita izan zen, eta apur bat estresagarria ere bai. Izan ere, orain Otxandioko Iluntxo pilota elkarte arduraduna naiz eta gure partiduen aurretik eskolako neskek partiduak jokatu behar zituzten. Haien antolatzen ibili nintzen nire neba Asierren eta elkarte guraso batzuen laguntzagaz. Egundaren oso gomuta onak ditut, gure partidua galdu arren. Frontoian jende asko batu zen, Korrika ere bazetorren...

**Leirek eta biok elkarregaz jokatzan genuen lehenengo txapelketa zen.**

**Txapelketa luzea izateak bikote lez sendotzen joateko aukera eskaini digu**

**Zu zeu zelan zauden orain? Joko aldetik, konfiantza aldetik...**

Finalean ez nuen hainbeste gozatu. Pilotari erasokorra naiz eta ez nuen neure jokoa gehiegi erabili. Baina final bat ere bazen. Txapelketa honetan, tantoa lantzearen garrantzia ikasi dut, horrela sortzen direlako zuloak kantxan. Nire helburua ahalik eta tantorik gutxien galtzea zen, ze ligaxkan galdu ditugun partidu asko hutsengaitik izan dira. Finala alde batera utzita, aspaldian asko gozatzan nabil pilotan, bai entrenamenduetan eta baita partiduetan ere. Oraindino badut zer ikasi, baina txapelketa honetan neure onena eman dut eta ea horrela jarraitzen dudana.

**Iaz San Fermin Torneo irabazi zenuen, eta aurten binakakoa. Bada zerbait.**

Nire helburua urtean txapel bat lortzea izaten da, berdin dio zein txapelketakoa. Orain gutxi, Ados elkartearen coaching formakuntzagaz hasi ginen Asier Arteagagaz, eta niri behintzat asko lagundu dit. Gauzei beste ikuspuntu bat ematen lagundu dit. Txapela irabazita oso pozik nago, jakina, baina galduta ere pozik egongo nintzen finalera heltzearen.

**Hiru urte joan dira Ados sortu zentetik. Geroago eta egitura finkatua goa duela esango zenuke?**

Bai. Bizitzan beste arlo guztietan lez, hasiera ez da erraza izaten eta apurka-apurka joan behar da. Urtetik urtera berrikuntza asko ekarri dituzte txapelketa guztie-

tan. Esaterako, binakako hone-  
tan joan-etorriko jardunaldiak  
egon dira, inoiz baino gehiago,  
34 udalekin batera antolatuta-  
koak. Oso nabarmentzeko pau-  
soa da. Lan izugarria egin dute.  
Baina ez txapelketen arloan  
bakarrik, baita pilotarion pro-  
fesionaltasunean ere. Profesio-  
nalen lez prestatzen saiatzen gara  
fisikoki, mentalki, teknikoki,  
nutrizioari dagokionez... Baita  
harrobia lantzerako orduan ere.

bizitzan, eta, neurri batean,  
Asier Arteagagaz izandako treba-  
kuntza horren ondorioa da.

**Aurrera begira, zer asmo duzu?**

Aste bi barru edo, Adoseko beste  
txapelketa bat hasiko dugu: Uda-  
berriko Txapelketa. Binaka eta lau  
eta erdian arituko gara. Iaz asko  
ibili nintzen lau eta erdian. Kaiolan  
aritzea egokitzen bazait, iazko  
maila ematea izango dut helburu.  
Gero hitzordu gehiago etorriko  
dira.

**Iaz eginiko elkarrizketan aipatu  
zenuen ikasketak amaitzerakoan  
Otxandioko Iluntxo pilota eskolari  
lagundu gura zeniola. Esan eta egin.  
Eskolako arduraduna zara. Zelakoa  
da Iluntxoren egoera?**

Ikasketak amaitu eta gero, Otxan-  
dioko pilota eskolari laguntzea zen  
nire asmoetariko bat. Azkenean,  
urte batzuetan nire belaunaldiko  
pilotariek ez dute herrian pilotan  
aritzeko aukerarik izan. Gero, Javi  
Axpek eta Beñat Gorospek gazteak  
entrenatzeko eta txapelketak an-  
tolatzen jarraitzeko ardura hartu  
zuten. Eta orain nik neure ekarpe-  
na egiteko aukera dut. Oso pozik  
gabiltza. Nire neba ere pilotaria da  
eta gazteen entrenatzaile gabiltza  
biok. Gaur egun 37 ume ditugu,  
euretariko 12 neskak. Nire garaian  
neskarik bakarrenetarikoa nin-  
tzen, eta orain hainbeste izatea oso  
pozigarria da.



Goian, Ruiz de Infante pilota astintzen. **EDUARDO AGIRRE** / Behean, txapeldun eta txapeldunorderak. **IONE SANTOS**

**Ez dut esango  
txapelketa coaching  
edo trebakuntzagaitik  
irabazi dudanik, baina  
bidelagun izan dut**

**Coaching-a edo trebakuntza aipatu  
duzu. Zer onura ekarri dizu?**

Niri asko lagundu dit. Ez pilota-  
rako bakarrik, baita bizitzarako  
ere. Gauzak hartzeko moduan,  
eguneroko lanari garrantzia  
emateko orduan... Ez dut uste  
txapelketa hau *coaching* edo tre-  
bakuntzagaitik irabazi dudanik,  
baina bidelagun izan dut. Esan  
dudan moduan, une honetan as-  
ko gozatzen nabil pilotan nahiz



**Okm:**  
batzen gaituen  
distantzia

abantaila  
guztiak  
hemen >



**Egin zaitez anbotokide!**

**30€  
urtean!**

**anboto  
kide**

# 'Euskara ibiltaria' erakusketak hizkuntzaren ahozkotasan ugariz bete du Plateruena

Herri Hizkeren Atlasean oinarrituriko 50 mapa ipini dituzte, entzutekoa eta usaintzekoa ere baden erakusketan

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**


Arin Durangaldean, Agudo Debaioenean, Fite Lapurdin eta Nafarroa Beherean, eta Zalhü Zuberotan. Hara hor Azkar berba esateko hainbat era baliokide Euskal Herriko luze-zabalean. Eta halantzik, objektu, esapide, tresna edo animalia

beraren bateko zein besteko aldeak han-hemenka jasota ondu du Euskaltzaindiak Durangoko Plateruena Kultur Aterpean aurkeztu duten erakusketa: *Euskara ibiltaria*.

Erakusketan, hizkuntzak herri batetik bestera eta eskualde batetik bestera dituen aldaerak

jaso dituzte 50 bat mapa baliatuta. Hori bai, aurkezturikoa ez da ikusmenera mugatzen, paneletariko batzuetan askotariko esapideak entzun, eta elementuak usaindu zein dastatu ahal izango dira eta.

Adolfo Arejita euskaltzain eta hizkuntzalariak 80ko hamarkadan ekin zion Euskararen Herri Hizkeren Atlas gidatzeari. Euskal Herriko 145 herritan jaso zituzten ahozko testigantzak, 5.000 orduetik gorako elkarrizketak batuta. Eginiko lanaren emaitza maiatzaren 15era arte egongo da Plateruenean. Honako ordutegi hauetan egongo da ikusgai: eguenean eta barikuetan (17:00-19:00), eta zapa-tuetan (10:30-13:30). Bisita gidatuak ere antolatu dituzte. Ordutegiak [anboto.org](http://anboto.org) atarian kontsultatu daitezke.



Euskaltzaindiko eta Durangoko Udaleko ordezkariak martitzen arratsaldean inauguratu zuten erakusketa.

# Obrak amaituta, Madalena plazak itxura berria estreinatu du

Lehenengo petrilak kenduta, aisialdirako gune irisgarriago bat dauka plaza berrituak. Horrez gainera, zoladura, landaredia, hiri-altzariak eta argiztapena berritu dituzte

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Durangoko Madalena plazak itxura berria estreinatu du asteon. Atzean geratu dira hileetako lanak. Eta lehen hain irisgarria ez zen plaza eremua, petrilez eta oztopo arkitektonikoz inguratuta zegoena, garbiagoa da orain. Joan-etorria oztopatzen zuten elementuak kentzeaz gainera, zoladura, landaredia, hiri-altzariak, iturria eta argiztapena hobetu dituzte. Komun publikoa baino ez da falta. Azpiegitura hori epe laburrean egokituko duela adierazi du Durangoko Udalak.

Berritze lanak aisialdiari eta irisgarritasunari begira egin dituzte, 1.779 metro karratuko eremuan. Obra bederatzita hilabetetan gauzatu dute, 478.000 euroko inbertsioa eginda. "Plaza guztiz berritua ipintzen dugu herritarren eskura, adin guztietako pertsonak elkartzeko, durangarrak eta bisitariak giro eroso eta ederean elkartzeko", esan du Mireia Elkoroiribe alkateak. EH Bildu eta Herriaren Eskubidea pozik agertu dira emaitzagaz. Plaza berritze proiektua joan zen legegintzaldian hasi zutela gaineratu dute.



Madalena plazak honako itxura hau hartu du lanak amaituta.

# San Faustoko auzogunea Kapitanena baserriko beheko solairuan egingo dute

Beheko solairuari eranskin bat ipiniko diote. Udala hirigintza-izapideak egiten hasiko da

**DURANGO • JOSEBA DERTEANO**

Badirudi Durangoko Udalak eta San Faustoko auzo elkarteak adostasuna lortu dutela auzogunearen kokalekuari buruzko eztabaidan. Udalak ohar bidez iragarri duenez,

auzogunea Kapitanena baserriaren beheko solairuan ipiniko dute, eranskin gehigarri batez. Kokalekua "ingurune inklusibo eta moldakorragaitik" eta honek eratu dezakeen "gizarte kohesioagaitik"

lehenetsi dute. Eranskinera bideraturiko espazioa handitu eta eliza aldera zabalduko dute, ingurunean integratze aldera. Udalak hirigintza-kudeaketak izapidetzen hasiko dela esan du.



Kapitanena baserria.

**anboto**

Gertuko Koop S.,  
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902

2024ko apirilaren 26a  
22. urtea - 976. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

## Laburbirak 8 film laburregaz lur hartuko du Elkartegian

Filmetariko bat Amaia Lejarreta durangarraren 'Erro' izango da. Proiekzioak maiatzaren 2an izango dira, 19:00etan

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Laburbira, euskaraz sortutako eta ekoiztako film laburren zirkuitua, Durangon izango da maiatzaren 2an. Zortzi film labur aurkeztuko dituzte. Tartean, etxeko zinemagile baten obra. Amaia Lejarreta durangarrak *Erro* film laburra aurkeztuko du bertan. Egilea bera Elkartegian izango da proiektioan zehar, eta solasaldia emango du. Jaialdia 19:00etan

hasiko da. Aurten 22 lan aurkeztu dituzte Laburbirara, eta zortzi aukeratu dituzte herririk herri egingo den zirkuituan parte hartzeko. Honako hauek: *Dena asmatuta dago* (Jone Arriola), *Katalinaren zoria* (Guillermo Ordás), *Erro* (Amaia Lejarreta), *Babesa* (Ander Iruretagoyena), *Mundu berri bat* (Mikel Alvarez), *Zirrara* (Ane Cuesta), *Talak* (Ilune Diaz eta Jordi Nuet) eta *Betizu buru* (Ander Iriarte).



Mikel Alvarezen 'Mundu berri bat' filmeko fotograma. KULTURKLIK.

## Durangoko Udalak hainbat lan egingo du soberakineko 2,6 milioi euro erabilita

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Durangoko Udalak soberakineko 2.668.557 euro baliatuko ditu hainbat obra egiteko herrian zehar. Musika Eskolako teilatua berritzeko obrarako, adibidez, 958.000 euro ipiniko dituzte. Alokairuko etxebizitza sozialetan ere inbertsioak egingo dituzte. Udalak hamasei etxebizitza sozial ditu bere eskura Faustegoiena aldean. Orain arte izandako sei, eta aurrerantzean kudeatuko dituen beste hamar. Azken hauek egokitu eta altzariak ipiniko dituzte bertan, 152.000 euro baliatuta. Aurreikusitako beste obra bat San Inazioko txintxaunak estaltzea izango da. 350.000 euro erabiliko dituzte horretarako. Bestalde, Pinondo Etxerako kultur etxearen proiektua idaztea (100.000 euro), Andragunean irisgarritasun lanak egitea (45.000 euro) eta Eguzkitzan ortu ludikoak ipini ahal izateko lurra prestatzea (238.000 euro) aurreikusi dute.

## Oraindino aukera dago Mallabiko 'Ez esan' jokoko apirileko galderei erantzuteko

**MALLABIA • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Mallabiko *Ez Esan* galdera-erantzunen jokoak aurrera jarraitzen du. Lehiaketa hau otsailean ipini zuten martxan Mallabiko Berbalagunek eta udalak. Eta, harrezkero, hainbat herritarrek parte hartu dute. Apirileko galdera sortan parte hartu gura dutenek apirilaren 30era arte dute aukera apirileko galderei erantzuteko. Galdetegiak liburutegian, udalletean eta frontoiko tabernan daude eskuragarri, besteak beste.

Horrez gainera, Mallabiko Berbalaguneko kideek jakinarazi dute martxoan herritar bakar batek asmatu dituela galdera guztiak: Soledad Bustinzuriagak. Berak jasoko du hile horretako oparia. Bestalde, aurreko hileetan legez, beste izen bat ere aukera dute zozketa baten bitartez: Iratxe Uribebarrea. Beraz, Bustizuriagak eta Uribebarreak osatuko dute galarako bigarren bikotea.

## Zaldibarko telefono kabina zena liburuak mailegatzeko tokia izango da aurrerantzean

Liburuak bertan hartu, eta irakurri ondoren kabinara bueltatu beharko dira. Ez da etxetik eramandako libururik utzi behar. Udal Liburutegia arduratuko da haren kudeaketaz



Eneritz Azpitarte alkatea eta Javi Vidal Udal Liburutegiko arduraduna, kabina barruan.

**ZALDIBAR • EKAITZ HERRERA**

Liburuaren Nazioarteko Eguna-gaz bat eginda, Zaldibarko Udal Liburutegiak egitasmo berezi bat ipini du martxan. Liburuak mailegatzeko toki bat ipini du N-634 errepidearen ondo-ondoan dagoen garai bateko telefono kabinan. Egitasmoaren helburuak bi dira: herritarrei liburuak gerturatuta irakurzaletasuna sustatzea bate-tik, eta urteetan erabilerarik barik egon den azpiegiturari bigarren erabilera bat ematea, bestetik.

**Erabilera egokirako deia**

Kabinak erabilera egokia izan dezan, Udal Liburutegiak hainbat argibide eman du: telefono kabinan eskuragarri ipiniko diren liburuak Zaldibarko Udal Liburutegikoak dira. Herritarrek momentuan irakurri edo etxera eraman ahal izango dituzte, beti ere, gero, kabinara bueltatzeko konpromisoagaz. Kabinan ez da nork bere etxetik eramandako libururik utzi behar. Udal Liburutegia bakarrik arduratuko da bertan liburuak ipintzeaz. Bertan ipiniko den materiala herritar guztientzako denez, liburuak errespetatzera deitu dute Udal Liburutegikoek. Udalak ildo beretik berba egin du; irakurketaz gozatzea eta ondarea zaintzea deitu du.

## Frankisten aurka borrokatu zirenak gogoratuko dituzte Castet Egunean



Castet Egunaren aurreko edizio bat.

**ZALDIBAR • EKAITZ HERRERA**

Domekan memoria historikoa lantzeko eguna izango dute Zaldibarren, Castet Egunaren 36. edizioa egingo dute eta. Orain dela 87 urte Santamañezar mendian izandako borroka gogoan, egitasmoaren bultzatzaileek bando frankistaren kontra guduakatu zirenak omenduko dituzte. Tartean, borroketan hildako Iñaki Castet komandantea eta bere taldea. Santamañezarrera bertara igota ekingo diote ekitaldi sortari. Ibilaldia 10:00etan irten-go da, udal plazatik. Gero, behin tontorrera igota, ikurrina zintzilikatu eta talde argazkia aterako dute (11:15ean). Beherakoan, lore eskaintza egingo dute udal plaza-ko plakan (12:30). Azkenik, Castet Elkartera joango dira kalejiran. Luntx bat izango dute han.

# Atxondoko Udalak Bizkaiko Elikagaien Bankurako joan- etorrien ardura hartuko du, Harrera Herriari laguntzeko

Basauriko biltegitik Axpeko aterpetxerako garraio lanak udalaren brigadako langileek egingo dituzte aurrerantzean

**ATXONDO • JOSEBA DERTEANO**

Atxondoko Harrera Herriak hainbat etorkini nahiz herrian beharrezana duten familiei laguntzen dihardu 2018tik hona. Basaurin dagoen Bizkaiko Elikagaien Bankuaren bitartez, beharrezana duten elikagaiz hornitzea da boluntario talde honek egiten duen lanetarikoa. Orain arte harrera taldekoak eurak joaten ziren Basaurira elikagaiak jasotzera, baina joan-etorriak euren lanorduekin bateratu beharrek eta bestelako kontuek zaildu egiten zuten garraioa. Udalari laguntza eskatu zioten eta erakundeak baieztatu eman die. Aurrerantzean Atxondoko Udaleko brigadako langileak arduratuko dira, hilean behin, elikagaiak udaleko furgonetan jaso eta Atxondoko aterpetxera eroateaz.

“Boluntario-lan handia egiten dute herritarrei zein etorkinei laguntzeko, eta eurei laguntzea garrantzitsua dela uste dugu”, adierazi du Eneritz Agirre Atxondoko alkatea. Harrera taldeko kideak “esker oneko” agertu dira. “Gu-

retzat sekulako laguntza da”, dio harrera taldeko Leire Azkargorta Erizek.

**Askotariko lanak**

Atxondoko Harrera Herriak 2018an hasi zuen bere bidea, baliabiderik

bako etorkinei laguntzeko helburuagaz: bizitoki bat eskainiz, ikasketekin lagunduz... Elikagaiak ere jasotzen zituzten Bizkaiko Bankutik. Orduan, herrian elikagaiak behar zituen jende eta familia gehiago zegoela ohartu ziren. Ha-

rezkero, udaleko gizarte langileagaz hartu-emanen ipintzen dira beharrezana duten familien zerrenda jasotzeko. Hileko hirugarren barikuetan elikagaiak ekarri eta Axpeko kideak arduratzen dira elikagai-sortak antolatzeaz.



Atxondoko Udaleko eta Atxondo Harrera Herriko ordezkaria, eta aterpetxeko kideak, joan zen barikuan, Basauritik ekarritako elikagaiekin.

## Otxandioko Pasealeku nagusien elkartek Bazkideen Eguna ospatuko du

**OTXANDIO • AITZIBER BASAURI**

Urteroko hitzorduari hutsik egin barik, Otxandioko Pasealeku nagusien elkarteak Bazkideen Eguna ospatuko du eguaztenean, maiatzaren 1ean. Jai xumea izango da, Txomin Bengoa elkartearen presidenteari azaldu duenez: “Elkartearen eguna ospatzeko elkartzen gara

**Luntxa 13:00etan izango da eta dultzaineroek eta trikitilariak girotuko dute**

bazkideok, eta herritar guztiak gonbidatzen ditugu parte hartzera. Luntxa prestatzen dugu eta giro polita sortzen da”. Luntxa 13:00etan izango da eta dultzaineroek eta trikitilariak girotuko dute.

Pasealeku nagusien elkarteak 1988an legeztautu zen, bere jarduna urte asko aurretik hasi zuen arren. Gaur egun, 85 bazkide ditu elkarteak, Bengoak azaldukoaren arabera.

# Mañarian aniztasunez eta euskaraz jantziriko Kultur Astea antolatu dute maiatzaren 10etik

Aurtengo edizioaren barruan Bizkaiko dultzaineroak omenduko dituzte, kalejirak eta ekitaldi bat eginda

**MAÑARIA • J.D.**

Mañariko Udalak aurtengo Kultur Astea aurkeztu du asteon. Maiatzaren 10etik 19ra bitartean, zer entzun eta zer egin ugari izango dute mañariarrek. Kultur Astea Porrotx eta Marimotots pailazoen *Amaren intxaurreak* ikuskizunagaz hasi eta Zirika zirkus konpainiaren eskutik eskainitako *Azken fakirra?* ikuskizunagaz zarratuko da. Bidean, deneriko ekintzak: Kuttuneren, Moonshine Wagonen eta Jon Basagurenen kontzertuak; Barsantiren *Akabo* obraren emankizuna; Wikiemakumeen berbaldia; Asisko Urmenetaren *Gora Euskal herrietsak* liburuaren aurkezpena; *Euskaldungak* bazarriketak. Azoka ere egingo dute domekan, maiatzak 19.

**Dultzaineroei omenaldia**

Maiatzaren 12an omenaldia egingo diete Bizkaiko dultzaineroei. Bizkaiaren hainbat ekitaldi antolatu da lurraldeko dultzaineroak

omentzeko, eta Mañarian hasiko da omenaldien bira hori. Gerediaga Elkartearen laguntzagaz, Juan Bilbao dultzainero mañariarra ere ekarriko dute gogora, besteak beste. Jon Gaminde dultzaineroen

kidearen esanetan, “dultzainaren aldeko aldarria egiteko eta gazteak bere historia ezagutzeko eta jotzen hastera animatzeko helburuagaz” antolatu da omenaldia. Eguna kalejira batez hasiko

da, eta, ondoren, erraldoi eta buruhandiak egongo dira. Eguerdian baltseorako tartea egongo da, ekitaldi nagusiaren aurretik. Arratsaldean *Akabo* antzezlanaren egongo da plazan.



Aina Otxotorena Mañariko alkatea, Jon Gaminde Bizkaiko dultzaineroen kidea eta Haritza Rodriguez Barsanti antzerki taldeko kidea.

## Bertso saioa izango da Izurtzan, Uztabarritzen Zirkuituaren barruan

**IZURTZA • J.D.**

Durandaldeko bertso eskolak antolaturiko Durangaldea Uztabarritzen Bertso Zirkuituak gaur bertan izango du hurrengo geralekua, Izurtzan. Hiru bertsolari arituko dira bertsoan plaza ondoan dagoen Argintxu elkartearen, 20:00etan: Bittor Altube, Eneko Abasolo *Abarkas* eta Unai Iturriaga. Itxaro Juaristik egingo ditu gai jartzaile lanak.

Uztabarritzen ekimenaren helburua bertso eskolako bertsolari eta gai jartzaileen plazaratzea bultzatzea da eta baita bertsolariak Durangaldeko herri guztietara zabaltzea ere. Aurtengoa laugarren aldia du. Testuinguru horretan, Izurtzako aurtengo hirugarren bertso saioa izango da, Elorrioko eta Otxandioko saioen ondoren. Maiatzaren 3an, 11n eta 17an beste saio bana egingo dute, Ermuan, Atxondon eta Zaldibarren, hurrenez hurren.

# Osasun gida

 **Podologia**  
PSE: 214/06

  
**OINEN ZAINZA ETA TRATAMENDUA**  
**IBILKERAREN AZTERKETA BIOMEKANIKOA**  
**NEURRIRA EGINDAKO PLANTILAK**

Herriko Gudarien kalea, 10 BEHEA  
DURANGO, Tel./Faxa: 946 215 404

 **Optometria**  
PSE: 162/13

NAIA  
ZABALA  
AUZMENDI  
11587 kol. zk.

  
**keinu**  
OPTOMETRIA ZENTROA

- JOKABIDE OPTOMETRIA • HAURREN IKUSMENA
- IKUSMENAREN ENTRENAMENDUA • JATORRIZKO ERREFLEXUAK • FOTOTERAPIA OPTOMETRIKOA
- SENA ENTZUMENAREN ESTIMULAZIOA • KIROL IKUSMENA • GARUNEKO LESIOAK • UKIPEN LENTEAK
- ORTO-K ETA MIOPIAREN KONTROLA

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 946 225 099  
[www.keinuoportometriazentroa.com](http://www.keinuoportometriazentroa.com)

 **Proktologia**  
PSE: 16/22

**prōktós.clinic**

Uzki eta zoru-pelbikoko patologien tratamendua

Mikeldi Kalea, 13, 48200 Durango, Bizkaia  
(MAM Zentroa)  
674 322 360 / 747 474 699  
[info@proktos.clinic](mailto:info@proktos.clinic)

 **Psikologia**

  
**gure**  
Zure bidelagun

**Haur, nerabe eta helduentzat**

Bikote-arazoak, antsietatea eta estresa, depresioa, eskola eta ikasketa zailtasunak, arreata goiztiarra, familia-arazoak, portaera-arazoak, estimulazio kognitiboa; oroimena, hizkuntza, arazoak logikoa, elikadura-portaera, diskalkulia eta dislexia.

 **623 173 181 - 613 038 933**  
Andra mari 16 ID Durango

 **Fisioterapia**  
PSE: 119/13

  
**ZAINDUZ**  
Fisioterapia • Osteopatia

Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu. Saio pertsonalizatuak dira, talde txikietan.

Trañabarren 13, 4. blokea behea eskuma  
MATIENA-ABADIÑO  
944 657 132 - 686 906 374

 **Fisioterapia**  
PSE: 57/16

  
**pablo zubizarreta**  
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D  
DURANGO  
[pzubizarreta@gmail.com](mailto:pzubizarreta@gmail.com)  
946 550 049 - 695 784 963

 **Odontologia**  
PSE: 145/13

  
**clínica dental hortz klinika**  
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA • INPLANTOLOGIA • KIRURGIA • ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA IKUSEZINA • ODONTOPEDIATRIA • PADI • HORTZETAKO ESTETIKA • HORTZETAKO ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }  
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454  
[uecdental@gmail.com](mailto:uecdental@gmail.com)

 **Odontologia**  
PSE: 26/22

  
**viteri**  
HORTZ-KLINIKA  
Konfiantzazko hortz klinika Durangon

**DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA, HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.**

Ordutegia:  
Astelehenerdik ostiralera: 10:00 - 14:00 | 16:00 - 20:00  
Larunbata: hitzordua hartuta  
944 14 80 36 | 626 18 30 30  
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia  
[www.clinicadentalviteri.com](http://www.clinicadentalviteri.com)



 **Naturopatia eta Homeopatia**

*Aurora Julià*  
**HOMEOPATIA • NATUROPATIA OSASUN INTEGRALA**

**Umeak - Helduak - Nagusiak**

Ordua hartzeko:  
**946 204 218**  
Txanporta Plaza, behea - Abadiño  
[www.aurorahomeopata.eus](http://www.aurorahomeopata.eus)





Anartz Gandiaga Hirigintza zinegotzia eta Ainhoa Salterain Zornotzako alkatea.

## El Carmelo parkea berritzeko lanak udan hasia aurreikusten dute

Zornotzako Udalaren esanetan, lanak udan hasiko lirateke eta bost hilabete iraungo dute

### ZORNOTZA • A. M.

El Carmelo parkean hainbat lan egingo dute udatik aurrera, berai eraberritu eta herriko udal parkeen sarean gehitzeko asmoagaz. Lanak udan hasia aurreikusten du Zornotzako Udalak, eta bost hilabete irautea. "Zornotza berdea da izatez, lorategi eta berdegune ugari du eta gure auzoen inguruan hazten da. Orain, El Carmelo parkeagaz, espazio hori Zornotzako gerriko berdeari gehitu gura diogu, zornotzarrek beste berdegune bat izan dezaten gozamenerako", adierazi du Ainhoa Salterain Zornotzako alkatea.

Parkeak hiru sarbide berri izatea aurreikusten du udalak, bat Carmen kaletik, eta beste biak Betarraganeko aparkalekutik; horietariko bat guztiz irisgarria izango litzateke, gainera.

### Larrea kiroldedia

Oraintsu Larrea kiroldedegiko spinning aretoak itxura aldatuta zabaldu ditu ateak berriro. Lan espazioaren funtzionaltasuna, aretoaren eta bertako materialaren segurtasuna eta iraunkortasuna hobetzeko helburuagaz egin dituzte lanak; besteak beste,

zorua babestu dute, manparak ipini dituzte, pladurrezko akaberak eman dituzte, eta egokitzapen eta garbiketa lanak egin dituzte. Zornotzako Udalak 23.000 euro inguruko inbertsioa egin du lan hauetarako.

### 'Ibiliaz ezagutu'

Zornotzako Udalak lau ibilaldi antolatuko ditu maiatzaren Gorbeia ur jauziak ezagutzeko. *Ibiliaz ezagutu* ekimenaren barruan, maiatzaren 4an, 11n, 18an eta 25ean egingo dituzte ibilaldiak.

## Hainbat eragile kaleko ordenantza berriaren aurka agertu da Zornotzan

Elkartek desadostasuna agertu dute espazio publikoa eta kale salmenta arautuko dituen ordenantza berriagaz

### ZORNOTZA • A. M.

Dozena bat elkarteek, besteak beste AEK, Ernai, eta Suhaziak elkarteek, desadostasuna agertu dute Zornotzako Udala onartzeko den ordenantza berri bat dela eta. Hain zuzen ere, kaleko salmenta eta espazio publikoaren erabilera arautuko duen ordenantza berriak "herritarren askatasuna mugatuko" duela salatu dute. "Ordenantzak udalari boterea ematen dio erabakiak modu arbitrarioan hartzeko, adibidez, eta baimenak justifikaziorik barik kentzeko",

salatu zuten prentsaren aurrean. "Horrez gainera, elkarteak burokrazian ito gura gaituzte, gehiegizko baimenak eskatu eta bete ezinako baldintzak jarrita", gaineratu zuten. Araudi berriaren ezarpena "inposaketa" dela salatu arren, udalari eskua luzatu diote testu berri bat elkarregaz adosteko: "Prest gaude araudia elkarregaz gertatzeko, herritarren arteko bizikidetzan ahalbidetuko duen tresna izan dadin, ez elkarte eta bestelako eragileen jarduna debekatzeko aitzakia".



Prensaurrekoko irudi bat.

## Elkartasuna adierazi diete 2021eko udan San Josen atxiloturiko gazteei

2021eko udan Elorriko atxilotu zituzten sei gazte epaitu dituzte apirilean zehar



Barikuan egin zuten elkarretaraztea Elorriko plazaan.

### ELORRIO • A. M.

2021eko udan Elorriko San Jose inguruetan atxilotu zituzten sei gazteak epaitzen dabiltzala eta, Elorriko gaztetxeak elkarretaratzera deitu du. Epaiketa salatzeaz gainera, babesa agertu gura izan diete gazteei. "Gazteok kriminalizatu egiten gaituzte komunikabideen, sare sozialen eta heziketa sistemaren bitartez, eta gure aurkako jazarpena zein bortizkeria poliziala justifikatzen dituzte. Horrela, interbentzio hauek egunerokotasuna bihurtu dira", salatu zuten. Horrez gainera, azken asteetan asanbladako hainbat kide identifikatu dituztela salatu dute. "Ez gara dena onartuko duen belaunaldia izango", aldarrikatuz amaitu zuten ekitaldia.

## Maiatzaren 4an egingo dute Berrizko XXV. Kaleko Pintura Lehiaketa

Berrizko Udalak 2.200 euro banatuko ditu, lau saritan

### BERRIZ • A. M.

Datorren maiatzaren 4an egingo dute Berrizko Kaleko Pintura Lehiaketa; aurtengoa 25. edizioa izango da. Irabazleak 700 euro jasoko ditu, bigarren saridunak 600 euro, eta hirugarrenak 500.

Berriztarrentzat sari berezi bat egingo da, 400 eurokoa. 16 urtetik gorako herritarrek parte hartu ahal izango dute. Lan irabazleekin erakusketa bat egingo dute Berrizko Kultur Etxean, maiatzaren 6tik 31ra bitartean.




Karlos Berrizbeitia, iazko lehiaketako irabazlea.



# ANBOTON ESKELAK IPINTZEKO NEURRIAK ETA PREZIOAK

## Eskelak eta oroigarriak paperean




**Izena Abizena  
Abizena**

Iurretan hil zen, 2023 ko apirilaren  
13an, 85 urte zituela

*Testua / olerkia*

Familiakoak




**Izena Abizena  
Abizena**

Iurretan hil zen, 2023 ko apirilaren  
13an, 85 urte zituela

*Testua / olerkia*

Familiakoak



**Prezioa** 2x2  
modulo

Paperean edo webgunean **75 €**  
**Anbotokideek 65 €**

Paperean + webgunean **115 €**  
**Anbotokideek 105 €**

**Prezioa** 3x2  
modulo

Paperean edo webgunean **110 €**  
**Anbotokideek 100 €**

Paperean + webgunean **150 €**  
**Anbotokideek 130 €**

## Eskelak webgunean

ESKELA

**Izena  
Abizena Abizena**



DURANGO

2022ko maiatzaren  
30ean hil zen.

ESKELA



**Izena Abizena Abizena**

Testua /Olerkia

*Durango, 2022ko maiatzaren 30ean*

### Eskelak ipintzeko moduak:

- Anbotoren bitartez: **946 810 658** telefono zenbakira deituta edo **anboto@anboto.org**-ra idatzita
- Anbotoko bulegora etorrira: Bixente Kapanaga, 9 behea
- Ehorztetxearen bitartez

Eguazteneko 14:30ak arte jasoko dugu informazioa.



## Anbotokideen txokoa

### APIRILEKO ZOZKETAK



**Xiberu tabernan** bi gosari bikoitz. Zornotza.



**Errigora** otzara.



**BBK Karpin Fauna** bi sarrera.



**Herri Urratseko** bi lote.

### Okm:

batzen gaituen distantzia

\*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

Egin zaitetz Anbotokide eta parte hartu gure zozketetan!



## Traña-Matienan dena prest dago Donien Atxa jaso eta jaiei hasiera emateko

**ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Bihar eguerdian Donien Atxa jasota eta txosnagunean pregoia irakurrita emango diote hasiera abadiñarrek Traña-Matienako San Prudentzio jaiei. Aurtengoa, gainera, hasiera berezia izango da. Normalean, iluntzean altxatzen dute jaiei hasiera ematen dien txopoa, baina aurten, zapatua izanda, eguerdian jasoko dute. Kuadrilla guztiak Trañako zubian batuko dira 10:00etan, Donien Atxa auzora eramateko, eta 12:00etan jasoko dute. Bes-

talde, txosnaguneko txupinazioa 13:00etan izango da.

Jaietako lehenengo egunean mozorro eguna ospatuko dute eta herriko kuadrillak herri bazkarian batuko dira, Traña plazan. Gauean ikuskizun piro-musikala egongo da tren geltokiaren ondoan, eta Trikizio taldeagaz erromeria.

San Prudentzio egunean, apirilak 28, jolasak eta henna tailerra egongo dira haurrentzat. Baita Txiki Txef tailerra ere, Zigor Iturrieta-gaz. 16:00etan kadeteen mailako txirrindulari lasterketa jokatu-

da. Eta 17:00etan tute txapelketa Taberna Zarrean eta San Prudentzio xake txapelketa Pino plazan.

### Arreta puntua

Bestalde, San Prudentzioetan lehenengo, arreta puntua egongo da; *Indarkeria matxistarik ez!* lelopean, Traña-Matienako Udal Bulegoa zabalduko dute. Apirilaren 27an, maiatzaren 3an eta maiatzaren 4an egongo da zabalik herritarrek hartzeko, 22:00etatik 06:00etara. Horrez gainera, telefono zenbaki bat ere ipini dute: 662 326 118.



Donien Atxa 12:00etan jasoko dute.

**ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Maiatzaren 6tik 12ra bitartean, Abadiñoko herritarrek Zelaietako kaleetako mugikortasunari buruzko herri kontsultan parte hartzeko aukera izango dute, auzoan ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazioa zelan antolatu behar den zehazteko. "Herritarren parte-hartze zuzenaren bitartez, Abadiño hobetzeko ariketa demokratikoa izango da, eta, modu berean, parte-hartze sozialean, adostasunean eta gobernantza irekiaren estiloan sakontzeko tresna izango da. Udal gobernu honetatik, gobernatzeko beste estilo baten alde egingo dugu", adierazi du Mikel Urrutia alkateak.

Abadiñoko Udaletik jakinarazi dutenez, 16 urtetik gorako herritar guztiek bost proposamen hauen artean (bakoitzak gura beste proposamen) aukeratu dezakete: lehenengoa, N-636 errepidean biribilgune berri bat ahalbidetzea; bigarrena, Iturritxo kaleko hegoaldean norabide bi baimentzea; hirugarrena, Zeletaben ordu batzuetan zirkulazioa baimentzea; laugarrena, trinketeko aparkalekua berrantolatzea; eta azkena, ferialekuan norabide bi baimentzea.

## Zelaietako mugikortasunari buruzko herri galdeketa Abadiñon, maiatzaren 6tik 12ra



Edurne Maguregi, Mikel Urrutia eta Naiara Bildosola.

"Galdeketa hau oso garrantzitsua da herritar guztiontzat, eta, beraz, abadiñar guztiei dei egingen diegu bertan parte hartzera", adierazi du Edurne Maguregi alkateordeak.

Galdeketa loteslea izateko, baldintza bi bete beharko dira: 16 urtetik gorako abadiñarren %10ek botoa ematea eta Zelaie-

tan erroldaturiko 16 urtetik gorako %20k botoa ematea.

Botoa honako leku eta egunetan eman ahal izango dira: maiatzaren 6tik 10era Traña-Matienako eta Zelaietako udal bulegoetan eta Errota Kultur Etxean eta Udal Mediatekan, maiatzaren 11n Errota Kultur Etxean, eta hilaren 12an Txanportan.



Garaiko harrigunearen ikuspegia.

## Herriaren etorkizuneko garapena planifikatzeko saioak hasi dituzte Garain

**GARAI • EKAITZ HERRERA**

Garaiko Udalak saio parte hartzaileak hasi ditu udalerraren bihar-etziko garapena diseinatzeko aldera. Jardunaldi sorta horien lehenengo harria eguaztenean ipini zuten. Saioak gidatzeaz arduratuko den lantaldeak eta udal agintariak prozesuaren nondik norakoak azaldu zituzten udaletxean. Garain indarrean dagoen Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) 1991koa da eta udalak beharrezkotzat jo du "eraberritze sakon bati eki-

tea". Prozesu parte hartzailean "gaur egungo zein bihar-etziko beharrianak identifikatu" gura dituzte, etorkizunean horiek "bideratzen laguntzeko". Alde horretatik, udalak prozesuan parte hartzera deitu ditu herritarrak: "Biziki garrantzitsua da ahalik eta parte hartzerik zabalena izatea prozedura horretan", adierazi dute udaletik. Prozedura honen lehenengo pausoak orain emango dituzten arren, HAPO berria 2027-2028 inguruan sartu gura dute indarrean.

## Umeentzako zientzia tailerra egingo dute domekan Garaiko ludotekan

**GARAI • EKAITZ HERRERA**

Trumoitte Kultur Elkartek umeei begirako ekintza bat antolatu du domeka honetarako. Umeentzako zientzia tailerra egingo dute ludotekan, 17:00etan hasita. Elkartetik zehaztu dutenez, Naiara Rodriguez Ezpeleta zientzialariak gidatuko du saioa. Egunerokoan

**Naiara Rodriguez Ezpeleta zientzialariak gidatu eta azalduko ditu zientzia esperimenduak**

arruntak diren elementuak baliatuta, esperimendu dibertigarri eta ikusgarriak egingo dituzte. Besteak beste, Coca-cola freskagarria eta Mentos karameluak nahastean sortzen den erreakzioa. Rodriguezek esperimendu guztien azalpen zientifikoa emango du. Zientzialari garaitarrak AZTI Fundazioan lan egiten du, itsasoko ekosistemak ikertzen.

## Mozorro eguna, tortilla txapelketa eta musika Oromiñoko sanmarkoetan

Kofradien Batzordeak antolatuta, autobusak egongo dira herrigunetik Oromiñora; Maspetik irtengo dira

**IURRETA • AITZIBER BASAURI**

Iurretako Oromiño auzoan sanmarkoak hasi dituzte asteon, eta asteburuari begira ekitaldi sorta prestatu dute. Bada, zapatua, armozuagaz eta Italia gai hartuta, mozorro kalejiragaz hasiko dute, 11:00etan. Arratsaldean Maiztegi eskolako umeen dantza saioa eta tortilla txapelketa egongo dira. Gaugiroa Luhartz plaza taldeak berotuko du. Domekarako produktu eta artisau azoka eta umeentzako talo tailerra antola-

tu dituzte, eta 12:00etako meza amaitu eta gero, Mikel Deuna dantza taldeak saioa egingo du. Ondoren, Eingo taldeak giroturiko kantu-dantza bazkarian batuko dira. Arratsaldean umeentzako jolasak egongo dira. Kofradien Batzordeak antolatuta, autobusak egongo dira Oromiñora: 17:30ean Maspetik irtengo du Oromiñora; 19:30ean (Maspe-Oromiño-Maspe); 00:30ean (Maspe-Oromiño-Maspe) eta 03:00etan (Oromiño-Maspe).



Luhartz taldeak giroturiko dau zapatu gaua.

# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, KOOP. E.



**Iker Sanjeronimo**

Sareko Informatika Sistemen Administrazioako  
Goi Mailako Heziketa Zikloa

### Zer eman dizu ziklo hori ikasteak?

Betidanik gustatu izan zaizkidalako teknologiarekin lotutako gaiak. Hasieran, ingeniari-tza Goi mailako ziklo hori ikastea oso garrantzitsua izan da. Alde batetik, informatikaren munduan asko ikasten nabil; eta, bestetik, programa dualean egoteko aukera izateari esker, etorkizunean zertan lan egin nahi dudana erabaki dut. Oraingoz, behintzat, gustatzen zaidana ikasten ari naizela ikusi dut, eta, gainera, nituen helburuak lortu ditut: bi urte hauetan ahalik eta gehien ikasi eta programa dualean egon ahal izatea.

### Noiz hasi zenituen praktikak? Zer da dual intentsiboa?

Onenpro enpresan praktikak 2023ko ekainaren 19an hasi nituen, eta 2024ko ekainaren 12an bukatuko ditut. Nire instruktoreak Mikel Hernando eta Asier Apraiz izan dira.

Gaur egun, hainbat motatako lanak egiten ditut: **makinetan agertzen diren akatsen arrazoia ikertzea, segurtasuna hobetzen saiatzea, zereginak automatizatzea, software-hobekuntzak garatzea...**

Horietako batzuek zerikusia dute klasean aztertutakoarekin, **sistematan ikertzea eta**

**garatzea** agintzen didatelako. Era berean, beste zeregin mota batzuk ikasi ahal izan ditut, software-probak egiteko konfiantza ere ematen didate, eta **proba horiek behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatu** behar dut, aplikatu ahal izateko.

### Zer eskaini dizu enpresan praktikak egitea, pertsonalki eta ikasketa aldetik?

Onenpron egoteari esker, **lan-mundua ezagutzeko aukera** izan dut, hala nola **taldean lan egin**, lanaldi orduak bete, **eskolan ikasitako guztia praktikan jarri** eta **informatika ikasi duen jendea ezagutu eta beste lan esparruak ikusi ditut**, eta gogoz nago gehiago jakin eta ikasteko.

Programa duala oso gomendagarria da ikasleentzat. Metodologia **ona iruditzen zait ikasi eta lan egitea**. Berritoki ikasiko banu, duala egiteko aukera izatea gustatuko litzaidake.

Ziklo hori ikasten hasi diren ikasleei esango nieke ematen dituzten aukerak **aprobetxatu ditzatela eta ahalik eta gehien ikas dezatela**.

### Eta etorkizuna nola ikusten duzu?

Ingeniaritza Informatikoa ikasten jarraitzea erabaki dut. Informatikaren mundua eta gai informatikoei buruzko lan-mundua ezagutu ahal izan dudanez, informatika gehiago aztertzen jarraitzea erabaki dut.

**ATE IREKIAK: Maiatzak 4, 11:00**

## Eman izena!

**MGEP: 664 298 683 // 664 298 704**



# Martxa zikloturista, erromeria eta umeentzako emanaldia Maiatzaren 1eko jaietan, Durangon

Durangoko Herria Auzo Elkarteak egitarau zabala antolatu du Maiatzaren 1a ospatzeko

## DURANGO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Durangoko Herria Auzo Elkarteak Maiatzaren 1aren bueltako jaiak antolatu ditu. Ekitaldiak Askatasun Etorbidearen eta Otamotzena parkearen bueltan egingo dituzte.

Apirilaren 27an emango diete hasiera jaiak, zapatuan, 10:30ean, ibilgailu klasikoek kontzentrazioagaz. 17:00etan umeentzako egurrezko jolasak egingo dituzte Otamotzenan, eta 18:00etan txokolatada.

Apirilaren 30ean erromeria egingo da Golden Covers taldearen



Herrian egindako txixiburduntzi bateko argazkia.

eskutik, eta maiatzaren 1erako egun osoko egitaraua antolatu dute. Txistularien kalejiragaz hasiko dute eguna, 10:00etan, eta

## Kriskitinen emanaldia, bertso saioa eta DJ Kaktus egongo dira eguaztenean Durangon

11:00etan 11 urtetik beherakoentzat martxa zikloturista egingo da. Bigarren eskuko azoka eta artisautza azoka ere hasiko da ordu horretan. 12:00etan Kriskitin dantza taldeak saioa egingo du, eta 13:00etan bertso saioa egingo da. Arratsaldean tute eta igel txapelketak egingo dira, eta umeentzako musika emanaldia, DJ Kaktusen eskutik.

## Politikan

Carlos García Fernández  
PP



## Paradore bat Durangon

Durangon Bizkaiari falta zaion Paradore Nazionala izatea planteatu dugu. Paradore nazionalak kalitate handiko hotelak dira eraikin historikoetan eta kokapen pribilegiatuetan. Bizkaia da paradorerik gabeko probintzia bakarra Estatu guztian. Kontuan izanda Euskadin paradore bat dugula Araban (Argomaniz), eta beste bat Gipuzkoan (Hondarribia), Bizkaian bat ez ere.

Horregatik, udalean proposatu dut Durangoko udal jauregi historiko batean paradore jarzea, hala nola Garai jauregian, Pinondo Etxean edo San Agustinen ospitale zaharrea.

Kontuan hartu behar dugu Paradore Nazional batek kalitatezko turismoa, zuzeneko lanpostuak eta gure ostalaritzarako eta gure merkataritzarako onura asko ekarriko dituela Durangora.

## Eraikin horien ondarea kontserbatuko da, eta, batez ere, Durango izango da Euskadiko kalitatezko turismoaren bihotza

Horregatik guztiagatik, udal arkitektoari txosten bat eskatu diogu, proposatutako hiru eraikinak hutsik daudela eta horretarako ezaugarri egokiak dituztela baieztatzeko. Udalean onartzea lortzen badut, Ogasun Ministerioa, Paradore Nazionalen jabe dena, arduratuko da obrak, kudeaketaz eta eraikina mantentzeaz; hala, Udalak eraikin horien mantentze-gastuak aurreztuko ditu, eta, gainera, eraikin horien ondarea kontserbatuko da, eta, batez ere, Durango izango da Euskadiko kalitatezko turismoaren bihotza.

## Durungaldea asteen

### Azken asteetan 4.000 liztor baino gehiago harrapatu dituzte Durungaldean

**DURANGALDEA** | Urkiola Landa Garapenaren eta Erlete Eztiola Elkartearen eskutik, liztor asiarrari aurre egiteko jardunaldiak egin zituzten martxoan, eta hainbat boluntariok tranpak ipini zituzten liztorrok harrapatzeko. Horri eskerrak, azken asteetan 4.000 liztor baino gehiago harrapatu dituzte. Kanpainak ekainera arte iraungo du.

### Boroan ganadu eta artisau azoka egingo dute apirilaren 28ko domekan

**ZORNOTZA** | Domekan ganadu eta nekazaritza postuen azoka egingo dute Boroan. Goizetik eguerdira arte, ganadu eta nekazaritza postuen azoka egingo da. Bien bitartean, trikitilariak giroa alaituko dute. Ardi mozketak eta harri jasotzaile gazteen ereakusketak ere egingo dira. Zornotzako Udalak Boroara bertaratzeko deia egin du.

### 'Zumbaton solidarioa' egingo dute apirilaren 28ko domekan, Zaldibarko kiroldegian

**ZALDIBAR** | Apirilaren 28ko domekan, alzheimerria eta beste demenzia batzuk dituzten pertsonen familien aldeko zumba saio solidarioa egingo dute Zaldibarren. 'Zumbaton solidarioa' 11:00etatik 13:00etara izango da, Zaldibarko kiroldegian. Zaldibarko Mugi Zaitetz elkarteak antolatu du ekimena eta parte hartu gura duenak 5 euro ordaindu beharko ditu.



### Puixemoi Produksioak taldeak irabazi du Labur Esanda lehiaketaren laugarren

**DURANGO** | Zapatuan Labur Esanda Durangoko film labur lehiaketaren laugarren edizioa egin zuten Plateruenean, eta dozenaka lagun batu ziren. Urtero legez, parte hartzaileek gaia (bertigoa), objektua (kopa) eta esaldia ("Esanik erruz egi bat eta bi gezurrekin ase") jasota, 24 ordu izan zituzten film labur bat sortzeko. Puixemoi Produksioak taldeak irabazi zuen lehenengo saria, *Jabetza* lanagaz; bigarren saria Zaharraz Harro taldeak lortu zuen, *Zirrikitu zoro oro zutik irriz* lanagaz; eta hirugarren saria Hariketarrak taldeak, *Terapiea* lanagaz.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:** Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (taratek barne).

**AgroPaper®**  
NEKAZARITZA  
JASANGARRI BATERAKO  
NEGUTEGIA



**Smurfit Kappa**



## LABIRINTOA



# ZENBATU OBJEKTUAK



# EGUZKI SISTEMA

## LETRA ZOPA

n	o	d	e	y	u	a	z	j	a	o
x	c	u	g	a	r	e	b	u	i	j
a	k	a	u	t	e	h	a	l	w	a
i	m	h	z	a	n	l	d	z	a	n
l	a	o	k	s	u	a	u	t	g	p
a	r	t	i	z	a	r	r	a	s	a
f	t	p	a	r	a	t	u	h	r	a
o	e	e	p	n	l	r	u	w	m	r
t	s	a	t	o	e	u	a	r	g	b
n	u	a	u	j	s	u	r	z	n	i
v	e	j	u	p	i	t	e	r	f	o
k	m	a	o	a	x	y	i	c	a	r

Marte

Saturno

Artizarra

Lurra

Jupiter

Eguzkia



## 'La dama boba'

ANTZERKIA

Durungaldea :: Apirilaren 26an, 27an eta 28an

### Lope de Vegaren 'La dama boba', antzokietan

Fundación Siglo de Oro konpainiak *La dama boba* antzezlanak taularatuko du asteburuan, Durungaldean. Elorrion, Durangon eta Zornotzan aurkeztuko dute Lope de Vegak idatzitako obraren egokitzapena. Antzezlanak Finea tuntunaren eta haren ahizpa Nise jakitunaren istorioa kontatzen du. Lizeok Finea gorteatzen du, eta Laureciok Nise, baina gizoneko biek euren maitasunaren jopuntua aldatuko dute emakume

bien izaera eta dohainak ezagutu ahala.

*La dama boba* 1613ko apirilaren 28an amaitu zuen Lope de Vegak, eta behin eta berriro maitasunaren eta arrazoiaren arteko joko komikoa planteatzen duten endreduzko komedien generoan batu daiteke. Arriola antzokian taularatuko dute gaur, 20:00etan; eta bihar Zornotza Aretoan. Domekan San Agustin kulturgunean egongo da, 19:00etan.

### Apirilaren 26an

#### DURANGO erakusketa

'Wanted. Identitatea', Fray Juan Zumarragako batxilergo artistikoko ikasleen lanak, San Agustin kulturgunean.

#### IURRETA ipuinak

'Abenturaz blai' (Naita Produzioak), 17:00etan, bibliotekan (3-5 urte). Sei urtetik gorakoentzat, 17:45ean.

'Cuentos viajeros' (Claudia Fonseca) helduentzako saioa, 19:00etan.

#### IURRETA erakusketa

'Ingurumena eta giza eskubideak', kultur etxean.

#### IURRETA sanmarkoak

Mus txapelketa azkarra, 19:30ean, Oromiñon.

#### IZURTZA bertsoak

Durungaldea Uztabarritzen IV. Bertso Zirkuitua: O. Iguaran, B. Altube, E. Abasolo Abarkas eta U. Iturriaga, 20:00etan, Argintxu elkartearen. Gai jartzailea: I. Juaristi.

### Apirilaren 27an

#### ABADIÑO mendi ibilaldia

Saibiren iparraldeko ur-jauziak eta pagadiak ezagutzeko ibilaldia, Parketxetik. Izena eman behar da: 946 814 155 / urkiola.park.naturala@bizkaia.eus.

#### DURANGO jaiak

Ibilgailu klasikoaren kontzentrazioa, 10:30ean (Herria auzo elkartearen). Umeentzako jolasak, 17:00etan, Otamotzenan. Txokolatea, 18:00etan.

#### DURANGO bisita gidatua

'Euskara ibiltaria' erakusketaren bisita gidatua, 11:30ean (euskaraz) eta 12:30ean (gaztelaniaz), Plateruena kultur aterpean.

#### ELORRIO dantza

Aka Dantz lehiaketa, 18:00etan, Arriola antzokian.

#### IURRETA sanmarkoak

Armosua eta mozarroen kalejira, 11:00etan, Oromiñon.

Maiztegiko umeen dantza saioa, 18:00etan Txokolatea.

Tortilla txapelketa, 20:30ean.

Luhartz taldea, 20:30ean. DJ Leire Etxano, 00:30ean.

#### IURRETA irteera

Bizikleta irteera Mutrikura, 09:00etan. Iurreta Txirrindulari Elkartearen.

#### ZORNOTZA ekitaldia

Independentzia Eguna Ikurrinari omenaldia, 12:15ean.

Herri argazkia, 12:30ean. Manifestazioa, 13:00etan. Herri bazkaria, 15:00etan, kantaldi parte hartzaileagaz.

Porrurik bez elektrotzaranga, 18:00etan. Des-Kontrol + Very Txarrak + Iluntzean, 20:00etan, Ixerbekoa kiroldegian.

### Apirilaren 28an

#### IURRETA sanmarkoak

Meza, 12:00etan, Oromiñon. Iurretako Dantzariak. Produktu eta artisau azoka. Umeentzako talo tailerra. Eingo taldeagaz kantu-dantza bazkaria, eguerdian. Umeen jolasak, 17:00etan. Errifaren zozketa eta Doniel Atxa botatzea.

#### IURRETA irteera

Bizikleta irteera Laukizera, 09:00etan. Iurreta Txirrindulari Elkartearen.

#### ZALDIBAR maratonia

Zumbaton solidarioa, 11:00etatik 13:00etara, kiroldegian. Alzheimerra eta beste dementzia batzuk dituzten gaixoen Bizkaiko elkartearen alde.

#### ZORNOTZA rallya

II. Argazki Rallya. Izen ematea, 08:30etik 09:30era, Ixerbekoa (Uztargi.klik).

#### ZORNOTZA azoka

Boroako Artisau eta Ganadu Azoka, 10:00etan. Ardi mozketa erakustaldia Mikel Etxebarriagaz, 12:00etan. Harrijasotzaile gazteak: Aritz eta Izei Abendibar, Haritz Aranguren eta Izadi Aguirre, 13:00etan.

### Apirilaren 28a bitartean

#### DURANGO erakusketa

Aratz Azpiri Maortuaren lana, Ezkurdi aretoan.

### Apirilaren 30ean

#### DURANGO jaiak

Golden Covers, 21:00etan (Herria auzo elkartearen).

### Maiatzaren 1ean

#### DURANGO jaiak

Txistulariak, 10:00etan (Herria auzo elkartearen). Zikloturista martxa, 11:00etan (11 urtetik behera). 2. eskuko azoka eta artisautza azoka, 11:00etan. Kriskitin taldea, 12:00etan. Bertso saioa, 13:00etan. Tute txapelketa, 16:30etan. DJ Kaktus, 17:00etan. Igel txapelketa, 19:00etan.

### Maiatzaren 2an

#### ABADIÑO kontzertua

The Black Wizards, 19:30ean, Amaraun Arte Fabrikan.

#### DURANGO film laburrak

'Laburbira' zirkuitua, 19:00etan, Elkartegian. Amaia Lejarreta zinemagileak berbaldia emango du.

## Zinema

### :: Berriz KULTUR ETXEA

• **Tratamos demasiado bien a las mujeres**  
barikua 26: 19:30  
domeka 28: 19:00

### :: Durango ZUGAZA ZINEMA

#### • El especialista

barikua 26: 18:30 / 21:00  
zapata 27: 16:30 / 19:00 / 21:30  
domeka 28: 17:00 / 19:30  
astelehena 29: 17:45 / 20:15  
martitzena 30: 17:45 / 20:15  
eguzatena 1: 17:00 / 19:30

#### • Rivales

barikua 26: 18:30 / 21:00  
zapata 27: 16:30 / 19:00 / 21:30  
domeka 28: 17:00 / 19:30  
astelehena 29: 17:45 / 20:15  
martitzena 30: 17:45 / 20:15  
eguzatena 1: 17:00 / 19:30

#### • Siempre nos quedará mañana

barikua 26: 18:30 / 21:00  
zapata 27: 19:00  
domeka 28: 19:30  
astelehena 29: 17:45  
martitzena 30: 17:45

#### • The Palace

zapata 27: 21:30  
astelehena 29: 20:15  
martitzena 30: 20:15

#### • La guardiana de dragones

zapata 27: 16:30  
domeka 28: 17:00

#### • Garfield: la película

eguzatena 1: 17:00 / 19:30

### :: Elorrio ARRIOLA ANTZOKIA

#### • La estrella azul

zapata 27: 20:00  
domeka 28: 20:00  
astelehena 29: 20:00

#### • Corre, Tiger, corre

domeka 28: 17:00

### :: Zornotza ZORNOTZA ARETOA

#### • Pequeñas cartas

indiscretas  
domeka 28: 20:00  
astelehena 29: 20:15

#### • Radical

eguzatena 2: 20:15



## San Prudentzio jaiak Traña-Matiena 2024

### Apirilak 27, zapatua

**10:00** Kuadrilla guztiak batuko dira Trañako zubian Donien Atxa ekartzeko.

**12:00** Donien Atxa jasotzea. Giroa alaitzen, **Dunbots** fanfarrea, **Iluntze** taldearen dantza saioa, eta urteko herritar ospetsua saritzeko ekitaldia.

**13:00** Txupinazoa txosna gunean Axtxiki Pilota Klubaren eskutik.

**14:30** Herri bazkaria Traña plazan. Ondoren, kuadrillen arteko jolasak, Txosna batzordeak antolatuta. Txartelak salgai apirilaren 22ra arte Errota Kultur Etxean. Prezioa: 10€

**19:00** Mozorro kalejira Trañabarren kalean, **Bizuka Percusión** fanfarreak alaituta.

**22:15 Ikuskizun piro-musikala** tren geltokiaren ondoan. Eurria edo haizea bada, hurrengo zapatara atzeratuko da.

**23:00** Erromeria Traña plazan: **Trikizio**

### Apirilak 28, domeka

**11:00-13:00** Umeendako jolasak Traña plazan. Eurria bada, frontoian.

**16:00-19:30** Umeendako jolasak Traña plazan. Eurria bada, frontoian.

**16:00** Haurrentzako henna-tailerra Traña plazan. Eurria bada, frontoian. Amalurra elkarteak antolatuta.

**16:00** Kadete mailako txirriindulari lasterketa, San Prudentzio saria. Abadiño Muntzaratz Txirriindulari Kirol Klubak antolatuta.

**17:00** Tute txapelketa Taberna Zarran

**17:00** San Prudentzio 2024 xake txapelketa Pino plazan.

**18:00 Txiki Txef tailerra Zigor Iturrietagaz** Traña plazan. Txosna Batzordeak antolatuta.

### Apirilak 30, martitzena

**19:30** Zesta-punta partiduak frontoian. Axtxiki Pilota Klubak antolatuta.

**22:00** Kontzertua Traña Plazan: **Llama a la pasma, Parabellum** eta **Leihotikan**

### Maiatzak 1, eguaztena

**Goizean Geu Be** taldeak Eusko Labeleko txahal bat erreko dau Traña- Matienako eskoletan.

**10:00 Txanbolin** taldeko Txistularien kalejira.

**10:00** Artisautza azoka eskolako aterpean.

**12:00** Herri kirolak Traña plazan. Eurria bada, frontoian.

**16:00** Mus txapelketa Herriko Etxean.

**17:00** San Prudentzio-San Trokaz esku pilota txapelketa kadete mailan. Axtxiki Pilota Klubak antolatuta.

**17:30 DesOrekatua** (Magia en zapatillas) familia ikuskizuna Pino plazan. Eurria bada, eskolako aterpean.

### Maiatzak 3, barikua

**16:45 Txiki merienda** merkatu plazan.

**17:15** Disko-dantza merkatu plazan.

**18:00** Esku-pilotako partidak frontoian. Axtxiki Pilota Klubak antolatuta.

**19:30** Parrillada eta **DJ Gartz** Traña plazan.

**22:00** Bingo solidarioa Traña plazan

**22:00** Bertso saioa Errota Kultur Etxean. Bertsolariak: **Maialen Lujanbio, Miren Amuriza, Oihana Bartra** eta **Eneko Abasolo "Abarkas"**. Gai jartzailea: **Igor Galarza**. Gonbiteak eskuragarri Errota Kultur Etxean apirilaren 25etik aurrera (gehienez 4 sarrera pertsonako).

**23:00 DJ Gartz** Traña plazan

### Maiatzak 4, zapatua

**10:00** Kickboxing opena Traña-Matienako kiroldegian, Fexmack taldeak antolatuta.

**11:30** Paella txapelketarako izen-ematea, merkatu plazan.

**12:30 Iluntze** dantza taldearen kalejira eta alardea Traña plazan. Eurria bada, frontoian.

**14:30** Txupinazoa eta Gazte Eguneko bazkaria Traña plazan. Ondoren, Gazte Eguneko jolasak. Eurria bada, eskolako aterpean. Traña-Matienako Gazte Asanbladak antolatuta.

**16:00** Ugasixo txapelketa merkatu plazan.

**17:30** San Prudentzio-San Trokaz esku pilota txapelketa finalerdia kadete mailan. Axtxiki Pilota Klubak antolatuta.

**17:30** Tortilla txapelketarako izen-ematea, merkatu plazan.

**18:30** Kalejira **Skapaie** taldeagaz, Traña-Matienako Gazte Asanbladak antolatuta.

**22:00** Kontzertua Traña plazan: **Sua, Dj Kuku, Dj Anybs** eta **Dj Kene**

**23:00** Jaialdia Trañabarren etorbidean: **Jaguar**

### Maiatzak 5, domeka


**10:00 Txanbolin** taldeko Txistularien kalejira.

**12:45 Jaizale** txistulari elkartearen kontzertua, elizan.

**13:30** Perretxiko-pintxo dastaketa Pinoko plazan, Geredixa mikologi elkarteak antolatuta.

**14:00** Nagusien bazkaria frontoian, Udalaren Gizarte Ongizate Arloak antolatuta. Ondoren **Serenade** taldearen emanaldia.

**20:00** Donien Atxa botatzea.



**Ez baduzu hanka sartu nahi, sartu zure iragarkia IragarkiLaburrak.eus atarian**

**iragarki laburrak .eus**

**Hemen eta online**

# “Zezerk paparrean eztanda egiten didanean idazten dut, inpultsotik; oraingoan hainbat sentsaziok eragin didate hori”

Nafarroako Goi Erriberan eginiko egonaldiaaren ondoren, Ainhoa Urien idazle abadiñarrak 'Mapa ez da lurraldea' kontakizuna idatzi du



**Ainhoa  
Urien Telletxe**

Idazlea

**ABADIÑO | 1995**

Horri lotuta, epilogoan Amelia eta Benito agertzen dira, 70 urte bueltako bikote bat; Benitoren aitak Ameliaren aitita hil zuen gerran. Baina Benito eta Amelia memoriaren aldeko borrokalari bi dira. Egundoko istorioak dituen jendea dago hemen, eta jende batek borroka egiten du, eta beste batek pasa.

**Irakurlea istorio horien lekuko izatera pasatzen da.**

Nire inspirazioa jendea izan da gehien bat, elkartu naizen horiek. Gertatzen zenari adi egon naiz, gainera. Edozein ikerketarako

**“Gertatzen zenari adi egon naiz, gainera. Edozein ikerketarako baliagarria iruditzen zait hori, gertatzen denari adi egotea”**

baliagarria iruditzen zait hori, gertatzen denari adi egotea. Detalle horiekin lortzen duzu irakurlea istorioan sartzea.

**Zer darama Ainhoa Urienek esperientzia honetatik?**

Hango paisajeez maitemindu naiz, eta baita jendeaz eta bizimoduaz ere. Oso ondo hartu nauen jendea da, maitasun piloa jaso dut, eta ipuina ere haiei eskertza moduko bat da. Esperientzia honen Euskal Herriaren beste alde bat erakutsi dit. Konturatu naiz lehenengo sektorea oso prekarizatuta dagoela hemen ere, baina jende batek euskaragazko duen militantzia maila ere erakutsi dit; euskararen aldeko borroka grin hori piztu zaidala esango nuke. Euskal Herriko mapa mentala zabaldu dit, hemen ere topatu dudalako gugaz bat egiten duen herri bat, bizimodu desberdinak izan ditzakegun arren. Hegemoniatik kanpora dagoen Euskal Herri bat da. Eta, batez ere, lur usainagaz ere geratzen naiz.

**Zelan inspiratu zara?**

Sentsazio erreal batzuetatik sorturiko fikziozko istorioak dira. Kontatu ditudan gertatu egin dira, baina fikzionatuta daude. Usainak, elkarrizketak, hartu-emanak... gertatu egin dira, errealak dira. Zezerk paparrean eztanda egiten didanean idazten dut, inpultsotik; hainbat sentsaziok hori eragin didate, eta hori idatzi eta fikzionatu dut.

LITERATURA • EKAITZ HERRERA

**Euskal Herriko sorkuntzari bultzada emateko helburuagaz, Udalbiltzak Geuretik Sortuak beka sortu zuen 2021ean. Egokitzen zaizkien herrietan egonaldiak egiten dituzte sortzaileek, eta Ainhoa Urien abadiñarraren kasuan, Nafarroako Goi Erriberan egon da, 'Mapa ez da lurraldea' idazteko; beste bederatzidazleren lanekin osatu dute 'Hamarreko bitxia' bilduma. Urien Mendabian, Lodosan, Sartagudan, Andosillan eta Sesman ibili zen.**

**Nafarroako Erriberako hainbat erreallitate erakusten duzu lan berrian. Isildutako erreallitateak dira?**

Ez dakit hain erreallitate ezezagunak diren, Durangaldeko eta hemengo ikuspuntua desberdinak direlako. Neure kasuan, ez nituen ezagutzen hona etorri aurretik, aurreiritzi batzuk baino ez. Ez dut ahalegin kontziente bat egin ezkutuko istorioak ateratzeko; jorneroen baldintzak oso

prekarioak dira, emakume arrazalatuak dira batez ere kontserbagintzan lan egiten dutenak... Ez dut ahalegin kontziente bat egin ezkutuko istorioak ateratzeko, baina hona etorri eta hori ez kontaktzea ere... Uste dut distantziatik begiratzeko diegula hemengo, oso urrun sentitzen ditugulako, eta zezeri distantziatik begiratzeko diogunean exotizatzen joera dago, onerako edo txarrerako. Paisaje multzo bat imajinatzen duzu, baina jendea hemen bizi egiten da, bere poz, maitemin, parranda, pena edo narrutaldiekin. Hartu-eman bollero bat bai, sartu dut, apurtzailea iruditzen zitzaidalako, eta memoria historikoa ere sartu dut, ezin baita ulertu Erribera memoria historiko barik. Zauriek bizi-bizirik jarraitzen dute.

**Istorioetan oso presente daude mugak.**

Proiektua beka deialdira aurkeztu nuenean obsesionatuta nen-

goen mugekin, muga kontzeptu zabal legez hartuta. Espainolez eta frantsesez desberdindu egiten dituzte *frontera* eta *límite*, baina euskaraz ez da hain agerikoa. Beka eman zidatenean pentsatu

**“Kontakizunean hartu-eman bollero bat sartu dut, apurtzailea iruditzen zitzaidalako, eta memoria historikoa ere sartu dut, ezin delako Erribera bestela imajinatu”**

nuen Ipar Euskal Herrira bidaliko nindutela, baina hegoaldera bidali nindutenean poztu egin nintzen. Hemen oso presente dute muga, baina, aldi berean, elkarlana ere badago alde bietara. Anbiguotasunean jausteko beldur nintzen, denerako balio

duenak ez duelako ezertarako ere balio, baina mugan kokatuta dagoen herri batek bere barruan zein muga dituen ikusi ahal izan dut, ez paisajistikoak edo territorialak bakarrik, baita euskararena, feminismoarena, klasearena edo beste batzuk ikusi ahal izan ditudalako.

**"Herriak memoriaren eta haren ukapenaren artean banatzen dira, eta tartean indiferentzia dosi handi bat dago". Zure berbak dira.**

Alde batetik, memoria aldarrikatzen dutenak daude; bestetik, kulpa historiko baten ondorioz memoria ukatzen dutenak daude. Eta gero, jende multzo bat dago, interes, ahal edo denadelakoarengaitik ez dena heltzen horra. Adibidez, migratzaile batzuk hor kokatu daitezke, beste lehentasun edo kezka batzuk dituztelako; transmisioa ere gatxa izan da kasu batzuetan, eta horregaitik gertatzen da jende bat erdian. Ez dakit eskoletan zelan lantzen den gaia.



Ander Lipus bigarren planoan, iazko edizioko irudi batean.

## Udako Olaren hirugarren edizioa, ekainaren 24tik 29ra bitartean

Egonaldi hauetan gazteekin kulturaren transmisioa lantzen da profesional eta erreferenteen eskutik; aurtan Leire Vargas idazle durangarra izango da horietariko bat

LORALDIA • A.M.

Udako Olaren hirugarren edizioa egingo dute aurtan. Udako Ola euskal kulturaren transmisioaren inguruko egonaldia da, gazteen-tzakoa. Kultura munduko profesional eta erreferenteen eskutik, parte hartzaileek zenbait diziplinatan esperimintatzeko aukera izango dute. Edizio honetan, besteak beste, Ane Labaka bertsolari eta idazlea, Josu Martinez zinema zuzendaria, Dantzaz Dantza taldea eta Leire Vargas idazle durangarra izango dira erreferente horietariko batzuk. Ekimena Lekeition izango da, ekainaren 24tik 29ra bitartean,

eta 18tik 29 urtera bitarteko pertsonen zuzenduta dago.

Egonaldiak sei egun irauten du eta bertan hamabost lagun batzen dira gehienez. "Lan egiteaz eta praktikatzeaz gainera, Udako Olak Lekeition gozatzeko, elkarregaz bizitzeko eta kultur jardueraz gozatzeko gune bat ere badu. Sei egunez, gazteek Lekeition Trinkete Etxean izango dute aterpea. Loraldirako propio sorturiko saioak dira, eta bertan hitza, soinua, irudia eta gorputz adierazpena lantzen dira. Horrez gainera, gazteek aukera izango dute erreferenteak bertatik bertara

ezagutzeko, transmisioa lantzeko eta euren arlo espezifikoa jasotzeko", azaldu dute Loralditik. Egonaldiagaz batera, Sormen Astea ere antolatzen du egun horietarako propio sorturiko programazioagaz. "Gure kulturako erreferenteak herri osora zabalduko diren zuzeneko emanaldiak izango dira", nabarmendu dute antolatzaileek.

Loraldiak Lekeition Udalen eta Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura, Euskara eta Kirol Sailaren babesarekin jaso du ekimen hau aurrera eramateko, eta izena Interneten bitartez eman daiteke.

## Zapatuan, Dantzaren Egunean, 500 lagun irtengo dira dantzara

L'Atelier dantza eskolak eta Durangoko Udalak elkarlanean antolatu dute XIV. Dantza Eguna

DANTZA • A.M.

Dantzaren Nazioarteko Eguna dela eta, XIV. Dantza Eguna antolatu dute Durangon zapatarako, hilaren 27rako. Beste behin ere, Durangoko Udalak eta L'Atelier Dantza Eskolak elkarlanean antolatu dute egun berezi hau, eta aurreratu dute 500 bat dantzari irtengo direla kalera dantzara. Egun osoko egitaraua antolatu dute herriko zenbait gunetarako. 10:00etan hasita, tailerrak, ballet emanaldiak, bazkaria eta dantza

moderno eta urbano erakusketak egongo dira. Ekitaldietan zehar, taberna eta denda zabalik edukiko dituzte, ikasleentzat dirua batzeko. "Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatzean, arte eder honi bizitza eskaini diotenak ez ezik, dantzak gure bizitza eta kultura aberasteko duen funtsezko eginkizuna ere aitortzen dugu", azaldu du Mireia Elkoroiribe alkateak. Horrez gainera, ekitaldietan parte hartzerako gonbidatu dituzte durangarrak eta bisitariak.



Aurreko edizio bateko irudia.

## Gai librean

### Gaur ere liburuaren eguna

Apirilaren 23a Liburuaren Nazioarteko Eguna izan zen; egun berezia, irakurketaren garrantzia eta liburuak gure bizitzan jokatzeko duten funtsezko papera ospatzen dituena. Paperezko eta tintazko objektu soilak ez ezik, irudimen, ezagutza eta emozio amaigabeko munduetarako atariak ere badira liburuak. Etxean liburuak egotea funtsezkoa da; izan ere, irakurketa sustatzeaz gain, banakoaren garapen integralari ere laguntzen diote.

Etxeko liburuak ikasteko eta hazkunde intelektuala giro aproposa sortzen dute. Txikitatik, liburuak inguratuta dauden haurrek aukera gehiago dituzte hizkuntza-trebetasun sendoak garatzeko, hiztegia eta irakurmena hobetzeko, eta kontzentrazio- eta sormen-gaitasun handiagoa lantzeko.



Esti Albizu Goikoetxea  
Bizenta Mogel

### Etxean liburuak egoteak haurrei aukera ematen die hainbat gai aztertzeko, interes berriak aurkitzeko

Gainera, etxean liburuak egoteak haurrei aukera ematen die hainbat gai aztertzeko, interes berriak aurkitzeko eta aukerak zabaltzeko.

Hainbat ikerketak erakutsi dute liburuak inguratuta hazi diren haurrek bizitzan zioriontsuagoak eta enpatikoa izateko joera dutela. Izan ere, irakurketak entretenimendua emateaz gain, enpatia garatzen, inguruko mundua ulertzen eta arazoak konpontzeko trebetasunak garatzen ere laguntzen die. Liburuak ikaskide isil gisa jokatzen dute, eta haurrei laguntzen diete

heldutasunera bidean inspirazioa eta perspektiba berriak eskainiz.

Durangon, beste udalerririk batzuetan ez bezala, hiru liburu-denda eder dauka. Urrike, Arteka eta Hitz liburu-dendek funtsezko zeregina dute komunitatean; liburuak erosteko lekuak ez ezik, topaketarako, kultura-trukerako eta irakurzaletasuna sustatzeko guneak ere badira.

Laburbilduz, Liburuaren Nazioarteko Eguna gogorarazten digu zer garrantzitsua diren irakurketaren ohitura lantzea eta etxean liburuak edukitzea. Liburuaren presentziak gure bizitzak banaka aberasten du eta, gainera, familia-loturak indartzen ditu, haurren garapenari laguntzen dio eta komunitatearen bizitza kulturala aberasten du, tokiko biblioteka eta liburu-denden funtsezko eginkizunaren bidez.

# Bidezabal atletismo klubak babes handiagoa eskatu dio Mankomunitateari, Gipuzkoako taldeen aurrean

Federazioaren erabakien aurrean jarrera tinkoagoa eskatu du, Federazioak Gipuzkoako talde bati estatuko txapelketa bat Durangon antolatzea ahalbidetu eta gero

ATLETISMOA • JOSEBA DERTEANO

Donostiako Club Atletico San Sebastian taldeak Ohorezko Mailari dagokion jardunaldi bat antolatuko du maiatzaren 5erako Durangoko atletismo pistan. Bidezabal klubeko arduradunen ustez, urak gainezka egiteko falta zen tanta izan da eta hedabideetara jo dute bidegabera iruditzen zaien egoera salatzeko. Kritikek Mankomunitatea dute jomuga. Kanpoko taldeen aurrean Durangokoak babesteko jarrera irmoagoa eskatu diote, etorkizunean handitzen joan daitekeen arazoa dela uste dutelako.

Arazoaren jatorria honako hau da: Espainiako Atletismo Federazioak aukeratzen ditu egoitzak eta antolatzaileak Espainiako txapelketak egiteko, bere irizpideen arabera. Gertatu daiteke Gipuzkoako klub batek Durangon antolatzea jardunaldi bat, eta Durangokoak, esaterako, Zaragozako jardunaldi bat programatzea. Eta kanporako joan-etorrien ondorioz, "klubeko gastuak handitu egiten dira". Bidezabaleko presidentea den Juan Ignacio Hernandez presidentearen esanetan, "berrogei bat pertsonarentzako bidaia eta ostatua diru asko da".

Etorkizunean "handitu" egin daitekeen arazoa dela uste dute. Zergaitik? Batetik, datorren den-



Bidezabal atletismo klubeko Juan Ignacio Hernandez eta Cristina Petite Bidezabaleko egoitzan, eguazteneko prentsurrekoan.

boraldian bederatzita talderaino hazi daitekeelako maila nazionalean lehiatzen diren taldeen kopurua. Euretari bost gipuzkoarrak lirake. Bestetik, Bizkaian eta Gipuzkoan maila horretako txapelketak hartu ditzakeen atletismo pista "bakarra" Durangokoa delako, Bidezabalen esanetan. "Arris-

kua argia da", dio Hernandezek. Testuinguru horretan, atletismo pistako arduraren Mankomunitatearena denez, hari jarrera "irmoagoa" eskatu diote etxeko taldeek —edo Bizkaikoak— defendatzeko. "Mankomunitateak haxe esan dezake: 'Bizkaikoak ez diren taldeek ez dute maila horretako

txapelketarik antolatuko Durangoko atletismo pistan'. Horixe eskatzen dugu", zehaztu du Hernandezek.

## Diru laguntzak

Diru laguntzak ere desadostasun iturri dira. Bidezabalen esanetan, 2023ko diru laguntzarako tra-

mitea "epe barruan" egin zuten, baina Mankomunitatearen iritziz ez. Ondorioz, Bidezabalek salaketa bat ipini du. "Justiziak arrazoiak ematen badigu ere, eragiten dituzten mina itzela da", adierazi dute. Gaia malgutasun handiagoagaz eramateko "enpatia falta" egotzi diote Mankomunitateari.

## Hiru garaipen segidan lortuta, lurretako Ohorezko Mailako zulotik irten da

Hortzak estutu, egoerari adarretatik heldu eta jaitsiera postuetatik irten da lurretako, azken asteetako emaitza bolada onari eskerrak. Bost jardunaldi falta dira aurtengo liga amaitzeko

FUTBOL • J.D.

Lurretakok zazpi garaipen daramatza eta euretari hiru azken hiru jardunaldietan heldu dira. Uritarra (1-0), San Pedro (1-2) eta Arratia (0-1) mendean hartuta, Ohorezko Mailako jaitsiera postetik irten da bost jardunaldi falta direnean liga amaitzeko.

Aipatzekoa da Adrian Tejedaren ekarpena. Otsailean batu zen lurretakora, Ondarroako Aurrera taldetik, eta bereak izan ziren Uritarraren eta Arratiaren kontrako garaipeneko golak. San Pedroren kontra, taldeak nortasun handia erakutsi zuen. Atzetik hasi eta irabazteko kapaz izan zen Asier Santosen eta taldeko golegile nagusia den Jon Filippiniren golei eskerrak.



Lurretakoko jokalariek aurten etxean jokaturiko partidu batean. LUIS ITURRIOZ

## Teknei Zornotzak iguera faseko final-laurdenak jokatuko ditu

Sorlí Benicarló kanporatuta, Sevillako Starlabs Morón da hurrengo koska. Joaneko neurketa Larrean da, zapatuan

SASKIBALOA • J.D.

Zilarrezko Ligan meritu handiko lana eginda, Teknei Zornotza taldea Urrezko Ligarako iguera fasea jokatuzeko sailkatu da aurten ere. Final-zortzirenetan Sorlí Benicarló kanporatuta, Sevillako Starlabs Morón tal-

dearen aurka jokatuko ditu final-laurdenak. Joaneko partidua zapatu honetan izango da, 18:30ean, Zornotzako Larrea kiroldegian. Harmailak betetzeko deia egin dute klubetik. Itzulerakoa hurrengo asteburuan izango da.



Larrea kiroldegia zalez betetzeko deia egin dute klubetik. BASKET BASKO

# Eskualdeko mendi taldeek ere ospatuko dute Euskal Mendi Federazioaren 100. urteurrena

Euskal Herriko ehun mendi talde baino gehiago beste hainbeste tontorretara igoko dira asteburuan; tartean, Durangoko Alpino, Elorrioko Erdella eta Zaldibarko Zaldua daude



Mendizaleak Toloñoko mendi-haitzen azpiko landetan (Araba). Erdellako kideak Toloñora igoko dira.

## MENDIA • JOSEBA DERTEANO

Mendeurrena baliatuta, Mendiurrena egitea erabaki dute. Euskal Mendizale Federazioak 100 urte egin dituela eta, Euskal Herriko geografia osoan barreiatu 100 klubek baino gehiagok Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako, Lapurdiko, Nafarroa Garaiko eta Behereko eta Zuberoako 100 tontor igoko dituzte asteburu honetan. Gainera, mendeurrena ospatzeko propio kaleraturiko banderak eramango dituzte gailurretara.

Euskal Mendi Federazioak kaleraturiko informazioaren arabera, 115 klubek parte hartuko dute egitasmoan. Durangaldeko taldeek ere parte hartuko dute bertan. Adibidez, Durangoko Alpinok, Elorrioko Erdellak eta Zaldibarko Zalduek. Alpinokoak Oiz mendira igoko dira, zapatuan. Horretarako hitzordua Durangoko tren geltokian egin dute, 08:35ean. Trena hartuta Berrizera joango dira, eta handik igoko dute Oiz. Bestalde, Erdellako

kideek Toloño izango dute helmuga zapatuan, Arabako Errioxako mendilerroa. Toloñoko Larrasa gailurra da, garaierari dagokionez, Arabako bigarrena. Zaldua mendi taldekoak Ermua mendira joango dira, domekan. 09:15ean ipini dute hitzordua, autobus geltokian.

Aurrera begira, urteurreneko ekitaldi instituzionala Elgetan egingo dute, maiatzaren 18an, 1924an federazioa ofizialki sortu zen hile eta egun berean.

# Bullonek eta Bernaolak sendo hasi dute Biharko Izarrak pilota txapelketa

Lehenengo jardunaldiko partiduak irabazi egin dituzte



Biharko Izarrak aurkezpeneko talde argazkia.

## PILOTA • J.D.

Durangaldeko ordezkari biek indartsu ekin diote Mallabiko Biharko Izarrak txapelketari. Partidu bana jokatu eta irabazi egin dute. Urko Bullon atzelari zornotzarrak eta Apezetxeak 22-11 menderatu zituzten Etxaniz eta Balerdi txapelketako lehenengo jardunaldian. Aingeru Bernaola mañariarrak Zubizarretagaz osatu zuen bikotea. Rekalde-Oliden bikoteari 22-18 irabazi zioten. Bernaolak datorren martitzenean jo-

katuko du txapelketako bigarren partidua.

## Master Kaiola

Zornotzako Master Kaiola txapelketako albisteak ez dira hain onak. Koldo Bikandi iurretarra eta Beñat Oregi zornotzarrak txapelketatik kanpora geratu dira Lizeagaren eta Camporen kontra galduta. Ondorioz eskualdeko ordezkari bakarra geratzen da: Bernaola mañariarra. Lizeagaren kontra ariko da maiatzaren 3an.

## Jokaldia

### Non du iparra errugbiak?

Errugbiaren munduak bi abiadura ezberdin dituela argi daukat. Estatuko errugbia aztertuz gero, ene aburuz arazo estrukturala dago. Zergatik? Klub gehienek baliabide ekonomiko nahikoak ez dituztelako talde profesional bilakatze-ko. Babesleak daude, baina gehienetan erakunde publikoak dira. Azken urteetan hainbatetan gertatu da, klub askok fitxaketak egin eta denboraldi erdian diru faltagatik jokalariek kobratu barik gelditu dira.

Txanponaren beste aldea Burgos taldea litzateke. Errugbian inolako tradizioa ez duen talde bat Estatuko onenen artean sartu da erakundeen laguntzarekin. Noiz arte jarraituko du hor goian azpiegitura minimoa ez duen talde batek? Ziurrenik erakundeen laguntza bukatu



Gotzon Gomez Barrenetxea  
Errugbia

**2018-2019an 12 taldeetatik 3 euskaldunak ziren. Gaur egun bakarra dago, Ordizia, eta estuasunak pasatu ditu**

**Frankizia indartsu bi sorzitezkeen, Bizkaian eta Gipuzkoan. Horrek klubun arteko adostasuna eskatzen du**

arte. Egoera gurera ekarrita, orain dela 6 urte, 2018-2019 denboraldian hain zuzen ere, 12 talde zeuden Lehen Mailan. 12 horietatik 3 talde euskaldunak ziren: Ordizia, Hernani eta Gernika. Gaur egun bakarra dago, Ordizia, eta estuasunak pasatu izan ditu mailari eusteko. Askotan gure inguruko taldeek Liga txapel-

ketan irabazitakoa ezin dute gauzatu, diru faltagatik.

Uste dut maite dugun kirol honen arduradunek hausnarketa sakona egin behar dutela. Alde batetik epe ertainera begira egiturak sendotu, babesle sendoak bilatu, harrobiak zaindu eta azken urteetan fitxa kopuru handitze hori babestu eta sustatu, eta, bukatzeko, kultura berri bat sustatu, non garrantzitsua litzatekeen eredu zehatz bat izatea, norabide zehatz batekin. Nire ustez, Irlandakoa edo Zeelanda Berrikoa izan daiteke bideragarriena hegoaldean. Frankizia indartsu bi sorzitezkeen, bata Bizkaian eta bestea Gipuzkoan. Horrek herrialde bakoitzean klubun arteko adostasuna eskatzen du. Zoritxarrez, uste dut inguruko taldeek beraian zilborra bakarrik ikusten dutela eta momentuz oso zaila izango da adostasun minimo bat lortzea.



**ETXETXO**  
INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)



**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1 ez. • 48200 DURANGO



**Inmobiliaria del Duranguesado**  
ASKATASUN ETORB. 10 • DURANGO • 946 816 666  
[www.inmoduranguesado.com](http://www.inmoduranguesado.com)  
inmoduranguesado@gmail.com



**Fernando Uribe**  
AGENCIA INMOBILIARIA  
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO  
Tel.: 946 816 423 • [www.fernandouribe.es](http://www.fernandouribe.es)



**IURRETA**  
Eraikuntza berria. 2 eta 3 logelako etxebizitzak. Garajea eta trastelekua barne.  
**256.000€-tik aurrera**



**IBAIZABAL**  
APARTAMENTUA. Sukaldea eta egongela handia. Trastelekua. Garajea. Bizitzen sartzeko moduan.  
**220.000 € C.E.E= E**



**TRONPERRI**  
123 m<sup>2</sup>. 4 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela. Ganbara. Garajea. Txoko komunitarioa.  
**260.000 € C.E.E= E**



**ERROTARITXUENA**  
95 m<sup>2</sup>. 3 logela, 2 komun, sukalde jantzia eta egongela. Terraza. Trastelekua eta garajea.  
**359.000 € C.E.E= D**



**FRANTZISKO IBARRA**  
105 m<sup>2</sup>. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela balkoira irteerarekin. Garaje itxia eta ganbara.  
**335.000€ C.E.E= E**



**IURRETA**  
70 m<sup>2</sup>. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Berogailua. Hegoaldea.  
**170.000 € C.E.E= F**

## // ETXEBIZITZAK SALGAI DURANGO

**ASKATASUN ETORBIDEA:** 2 logela, 2 komun eta sukalde-egongela. Terraza handia. Garajea eta ganbara.

**PINONDO:** Logela biko atiko ederra. Sukaldea eta komuna. 50 m<sup>2</sup>-ko lokalarekin batera salgai.

**BARRENKALEA:** Logela bateko apartamentua. Sukaldea, egongela, eta komuna. Trastelekua.

**TABIRA:** 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Oso argitsua.

**BERRIZ**  
**BERRIZ:** 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta trastelekua.

**BERRIZ:** 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

**ATXONDO:** 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

## //LURSAILAK SALGAI

**TABIRA:** 1.445 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Laua.

**IURRETA:** 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

## //BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

**ABADIÑO:** Etxezurin kokatua. 300 m<sup>2</sup>. Berriztatzeko. Lursailarekin. Ganbara.

**BERRIZ:** Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

**BERRIZ:** Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politik.

**ATXONDO:** AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatzeko. Kokapen izugarria

**MAÑARIA:** 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m<sup>2</sup> solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

**MENDATA:** Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

## //BULEGOAK ALOKAIUAN ABADIÑO

30 m<sup>2</sup>-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

## //GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

## //LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

## //LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

**MATIENA:** 460m<sup>2</sup>-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

## www.inmoduranguesado.com



**DURANGO** 52 m<sup>2</sup>  
3 logela  
**GASTEIZ ERREPIDEA:** 58 m<sup>2</sup>. Egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Etxe osoak kanpora ematen du (iparraldea) ikuspegiak. Egoera onean baina berrikuntzak behar ditu. Leku onean kokatua, zonalde berdeak. ITE-a oraintsu pasatakoa.  
**109.000 € C.E.E: D**



**DURANGO** 50,56 m<sup>2</sup>  
**SAN FAUSTO:** 50,56 m<sup>2</sup>. Halla, egongela, sukalde jantzia, logela eta komuna. Banaketa berria egiteko aukerarekin. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-hegoaldea) ikuspegiak. Leku onean kokatua, zonalde lasaia eta aparkatzeko erraztasuna.  
**114.000 € C.E.E: G**



**DURANGO** 90,90 m<sup>2</sup>  
**LAUBIDETA:** (2004.an eraikitakoa) bi solairutan: Lehenengo solairua: 67 m<sup>2</sup>. Egongela, sukalde jantzia, 2 logela, eskegitokia eta komuna. Bigarren solairua: 23,90 m<sup>2</sup>, espazio diafonoan eta komuna. Laugarren logelarako aukera. Ezin hobea. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-hegoaldea). Argitsua eta ikuspegiak dituena. Zonalde lasaia. Zonalde berdeak eta zerbitzuguoneak eta herriko sarrera/irteeratik gertu. Garajea aukeran: + 20.000 €, itexto aukerarekin.  
**315.000 € C.E.E: Bidean**



**MATIENA** 73 m<sup>2</sup>  
3 logela  
**TXINURRISOLO:** Egongela-sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia. Berriztatua. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-ekialde-hegoaldea). Leku onean kokatua, zonalde berdeetatik eta zerbitzuguoneetatik gertu. 6 m<sup>2</sup>-ko ganbara. ITE-a pasatutakoa. Ez ditu berrikuntzak behar.  
**169.000 € C.E.E: E**



**MATIENA** 82 m<sup>2</sup>  
3 logela  
**SAN PRUDENZIO:** Egongela, sukalde jantzia, komuna. (berriztatua, duxarekin) eta despentsa (komuna egiteko aukerarekin). 2 terraza. Egoera onean baina berrikuntzak behar ditu. Etxe osoak kanpora ematen du, hego-ekialdea. Argitsua. Ikuspegi ederrak. Leku onean kokatua, zonalde berdeak eta zerbitzuguoneak gertu (aparkalekua, eskola, komertzioak...) 10 m<sup>2</sup>-ko ganbara, igogailutik sarbide zuzenarekin.  
**174.000 € C.E.E: Bidean**



**IURRETA** 56,01 m<sup>2</sup>  
2 logela  
**DANTZARI:** Halla, sukaldea, egongela eta komuna. Egoera onean. Etxebizitza altua eta argitsua (ekialde-mendebaldea). Leku onean kokatua, zonalde berdez eta zerbitzuguonez inguratuta. Instalazio elektrikoak eta iturgintza berriztatua. 2007. urtean eraikia. ITE-a oraintsu pasatakoa. Ez du berrikuntzarik behar.  
**166.000 € C.E.E: E**

## //BERRIAK ABADIÑO

**TORRESOLO KALEA:** 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Ganbara. Igogailua.  
**139.000 € / E.E.Z=E**

**//DURANGO**  
**ANTSO ESTEGIZ:** 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Trastelekua. Igogailua. **LEHEN 192.000 € ORAIN 175.000 € / E.E.Z=F**

**ASKATASUN ETORBIDEA: 2 LOGELA,** egongela, sukaldea eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Ganbara. garajea aukeran.  
**320.000 € / E.E.Z=E**

**ASKATASUN ETORBIDEA:** 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 320.000 € ORAIN 298.000 € / E.E.Z=E**

**ASKATASUN ETORBIDEA:** 3 logela, sukaldea eskegitokiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000€ ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

**BARRENKALEA:** 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Berriztatzeko. **LEHEN 150.000 € ORAIN 138.000 € / E.E.Z=G**

**BARRENKALEA:** Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

**ERROTARITXUENA:** 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea. Trastelekua. Igogailua. **359.000€ / E.E.Z=D**

**JUAN DE OLAZARAN:** 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

**KALEBARRIA:** 2 logela, egongela-sukaldea eta komuna. Igogailua. **LEHEN 195.000 € / ORAIN 175.000 € / E.E.Z=E**

**KOMENTU KALEA:** 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. Ganbara. **187.000 € / E.E.Z=E**

**SANTIKURUTZ KALEA:** Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600 m<sup>2</sup>-ko lurzorua. **LEHEN 550.000 € ORAIN 495.000 €**

**//BERRIZ**  
**MURGOITIO AUZOA:** Berreraikitze komuna baserria lurzorugaz. **LEHEN 280.000 € ORAIN 250.000€**

**//GARAI**  
**MOMOITIO AUZOA:** Etxebizitza eraikitze komuna lursailak. Aukera ezberdinak.

**//IZURTZA**  
**ELIZALDE AUZOA:** 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **LEHEN 620.000€ ORAIN 570.000€/ E.E.Z=E**

**//OTXANDIO**  
**ZELAIETA AUZOA:** Baserria. 40.355 m<sup>2</sup>-ko lursaila. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. **LEHEN 348.000€ / ORAIN 280.000€ E.E.Z=G**

**//ZALDIBAR**  
**BOLATOKI KALEA:** 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. **130.000 € / E.E.Z=G**

**//GARAJEAK SALGAI /ALOKATZEKO**  
Durango eta lurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuarekin.

## Botikak

**BARIKUA, 26** · 09:00-09:00

NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO  
MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE  
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO  
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL  
15 - ZORNOTZA

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA  
5 - ZORNOTZA

**ZAPATUA, 27** · 09:00-09:00

ETXEBARRIA, MONTEVIDEO  
ETORB. 2. - DURANGO

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA  
5 - ZORNOTZA

09:00-13:30

NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO

BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO

CAMPILLO, MONTEVIDEO  
ETORB. 24 - DURANGO

SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO

DE DIEGO, INTXAURRONDO  
22. - DURANGO

BALENCIAGA, EZKURDI  
PLAZA 8 - DURANGO

GAZTELUMENDI, J.A.  
ABASOLO 2 - DURANGO

SANTAMARIA, ERREKAKALE 6. - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA,  
TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL  
15 - ZORNOTZA

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR  
14 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN, BIXENTE  
KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE  
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA  
5 - ZORNOTZA

**DOMEKA, 28** · 09:00-09:00

BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA  
5 - ZORNOTZA

**ASTELEHENA, 29** · 09:00-09:00

DE DIEGO, INTXAURRONDO  
22. - DURANGO

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA  
5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE  
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL  
15 - ZORNOTZA

**MARTITZENA, 30** · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL, ASKATASUN  
ETORB. 19 - DURANGO

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA  
5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE  
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL  
15 - ZORNOTZA

**EGUAZTENA, 1** 09:00-09:00

MUGICA, ANDRA MARIA 9 - DURANGO

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA  
5 - ZORNOTZA

**EGUENA, 2** · 09:00-09:00

IRIGOIEN, BIXENTE  
KAPANAGA 3 - IURRETA

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA  
5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE  
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL  
15 - ZORNOTZA

## Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEN 14:00AK ARTEKO EPEA



### GOZATU GOZOTEGIA


Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.**

Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
661 40 14 00  
gozatudurango@gmail.com  
Gozatu Gozotegia  
gozatugozotegia




Zorionak Berrizko **Gari Velerdaseri** eta Iruñan bizi den bere izeko **Erlea Velerdaseri** euren 4. eta 42. urtegunean. Mosu bat anaia Lier eta lehengusina Izaroren partez, eta loiba Gari eta Lier, eta alaba Izaroren partez. Eta batez ere amama eta ama Maribiren partez.



Apirilaren 25ean **Aratzek** 13 urte egin zituen. Zorionak ama, Jabi, Haizea, Amets, Julen, Lur, Maguie, Oreo, Goku, Boo eta familia guztiaren partez.



Zorionak, **Mara!** 6 urte egingo dozuz! Nagusitzen zoaz... Askok maitte zaitugu!



Eeepa, señora! Etxeko guztien partez zorionak eta eskerrik asko gure bizitza alaitzeagaitik. Disfrutau, ospatuu...



Zorionak, Txiki! Egun on-ona pasatu. Eta jarraitu horrelako paella gozoa egiten.



Zorionak, motel! Earra egin dek, 32 beteittuk... Hurrengo urtin JeXukriston adiña betekoek. Jakinzak Bittorin kontsejue erromerixetan fuerte ibili ezkeru hurrengo egunien txupito de Fireball ta saquito de bero. Mosutxuek de parte de txarritxus conocidas.

## Eskelak



### Patxi Larrañaga Agirre

Ikastolako bazkide laguntzailea

Bizitzak izaten du tarteka min hotza  
neguaren erdian zatituz bihotza  
nork erabakitzen du luze edo motza  
bizitzaren senide dugu heriotza

Une latz hauetan bat egiten dugu  
famiariaren saminarekin.



## Eguraldia

ZAPATUA ↓ 7° / 18° ☁

ASTELEHENA ↓ 8° / 14° ☁

EGUAZTENA ↓ 8° / 13° ☁

DOMEKA ↓ 5° / 17° ☁

MARTITZENA ↓ 7° / 19° ☁

EGUENA ↓ 7° / 16° ☁

# AUZORIK AUZO 2024



Joxe Mendizabal

MAIATZAK 11  
BARRA AUZOAN  
18:00

eta jarraian  
auzokideekin lortu xume bat

# DIBA

K O O P E R A T I B A

Durangaldeko  
Baserritarren  
Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

# "Gaur egun teknika handia dago; lehen indar basatia zen futbola"

Elorrio Futbol Klubak 100 urte egiten ditu aurten eta Pedro Eriz klubaren historia luze horretako parte izan da; jokalaria eta entrenatzailea izan zen, baita idazkaria ere



**Pedro Eriz Arbulo**

Jubilatua

**ELORRIO | 1925**

**ELORRIO • AITZIBER BASAURI**

**Pedro Erizek hamar denboralditan jokatu zuen futbolean, erdiko aurrelari. Erregional Mailan hasi zuen ibilbidea, Amorebieta futbol taldeagaz. 1945/1946ko eta 1946/1947ko taldeekin jokatu zuen, Bergarako futbol taldeak fitxatu zuen arte. Bergarako taldeagaz Preferente Mailan jokatu zuen, lau denboralditan. Azken urteak Elorrio Futbol Klubean egin zituen, 1951tik 1955era. Erizek 99 urte egin berri ditu eta gogoan ditu gaztetako hainbat pasadizo.**

**Umetan San Roken ibiltzen zineten futbolean.**

Bai, arbola artean. Koskortzean

arbolak botatzea lortu genuen, udalaren baimenagaz. Eta kuadrilla arteko txapelketa jokatzeko genuen. Lau talde ginen: Rayo, Umore Ona, Intxorta eta gurea, Tximista. Futbola, pilota eta bizikleta, horretxek genituen guk.

**Erdiko aurrelari izan zinen Amorebieta, Bergara eta Elorrio futbol taldeetan. Askok aldatu da futbola zuen sasoitik?**

Gure sasoiko futbolak eta gaur egungoak ez dute batere zerikusirik. Orain, jokalariei zer egin behar duten eta nondik mugitu behar duten esaten zaie. Gaur egun teknika handia dago; lehen indar basatia zen futbola. Nik neuk ez

neukan teknika, baina indarra bai. Pilotan hobeto ibiliko nintzen, baina futbola gustatzen zitzaidan. Eibarko Astelenan jokatu nuen nire lehenengo pilota partidua, igeltsero baten praka zuriekin, pilotari batek huts egin zuelako. Galdu egin genuen.

**Amorebietan hasi zenuen ibilbidea.** Lagun bati fitxa egitera lagundu nion eta harek nik ere jokatzeko nuela esan zien. Lehenengo entrenamendu haretan hiru gol sartu nituen. Hurrengo urtean anaia gazteak joan nintzen fitxa egitera, bizikletan. 200 pezeta eman zizkidaten denboraldirako, diru asko orduan. Gero, Bergaran

nengoela, probak egin nituen Realean, eta Harotik (Errioxa) ere deitu zidaten. Urtean 2.000 pezetako fitxa eskaini zidaten Haron, eta hilero 950 pezeta. Baina hara joan behar nuen bizitzera.

**Futboleko oinetakoak lotzea abentura bat zen orduan.**

Bai, hanka ondo lotuta izaten genuen, behetik gora eta atzetik aurrera, bloke batean sartuta lez. Narruzko takoak gogor-gogorak ziren eta untzeekin josten ziren. Amorebietan dutxak genituen, baina Bergaran errekarara joaten ginen garbitzera. Geroago, 40 bat litroko bidoia erabiltzen genuen garbitzeko.

**Bergaran nengoela, probak egin nituen Realean, eta Harotik (Errioxa) ere deitu zidaten**

**Bergarara bizikletan joaten zinen entrenatzailea.**

Hiru-lau bider joan nintzen. Elgetara heltzean, paparrean eta tripan egunkaria ipintzen nuen, eta heltzean futbol-zelaiaren ondoan zegoen baserriko emakumeari ematen nion arropa, sikatzen utzi zezan. Lau hasi ginen eta taldia ipintzen ziguten entrenatzailea joateko, eguazten eta barikuetan. Baina gero bi baino ez ginen geratu, eta azkenean neu bakarrik, besteari sodadutza egiteko deitu zioten eta. Oñatira autobusean joaten nintzen, eta gero oinez Bergarara.

**Athleticzalea zara, ezta?**

Bai, baina esango nuke fanatismo apur bat ere badagoela. Athleticzaletasuna sentitu egin behar da. Bestalde, futboleko indarra badagoen arren, jenio bizi apur bat behar da. Diru asko mugitzen da eta hankak zaindu egin behar dira. Dena dela, inoren aurretik Elorriozalea naiz. Baina asko sufritzen dut ilobak ikusita, eta ez naiz partiduetara joaten.

**Zein zenuen idolo zuen sasoiak?**

Futboleko Zarra, eta pilotan Atano VII.a. Futbolari on asko dago orain eta gazteak indartsu datoz.

**Lauhortza**

Karolina Suarez Borges  
Kazetaria




**Tradizioari desafio**



"Hartu itzazu ardo batzuk nire partez!" Esaten zien hilaren 21ean bokal gisa zegoen gizonak haren ezagunei. Portzierto, ezagun andana. Eguraldi ederra, benetan, iragan domekakoa. Gizonaren alboko andre zaharragoak ere, presidenteak, edan nahi zituen zurito batzuk eguzkitan.

Beste bokala emakume arrazializatu gaztea zen, auzoko dendari ezaguna. Haren botoa zen perzibitzeko zailena. Hargatik hurbiltzen zitzaizkion edozein alderditako ahalduak. Auzokoen deiturak hitz apalez eta lotsa zantzuz irakurtzen zituen. Ondoko EAJko ahalduak baino ez zuen entzuten. EH Bilduko ahaldua mahaiko gizona laguntzen; zifra-akats bategatik goiz osoko lana berregin behar zen. Han ziren biak, tipexarekin, *hand to hand*. Bukatzean, zigarroa erre eta bueltan, presidenteak berak zuen Bildukoaren hautesle-errola, inork eskatu gabe, laguntzeko.

EAJkoak Bildukoari galdetu zion ea bietako zeinek irabaziko zituen boto gehien han. "Mahai honetan? Zuek", erantzun bitartean PSEkoak ozenago: "Ez zenekien? Toki hau ona da, PP eta EAJren-tzat!". PPkoa pozik "A, bai?" — batak jakin Espainiako zein herritik bidali zuten bertara; imajinatu ere ez zuen egin PSEkoa herriko alkateordea denik—. Anduezak eta Atutxak adierazi dute «logikoen» eta «normalena» litzatekeela azken urteetako koalizioari jarraipena ematea. Ba, ohituren arazoa da usadioaren arabera eboluzionatzen dutela. EH Bildu izan da indar bozkatuena Durangaldean. EAJ-PSE koalizioak PPren babesa erabili zuen leku guztietan Otxandianoren taldea izan da garaile. Legegintzaldi hau mugarri izango da; tradizioa dirudienari desafio egin zaio eta betiereko boterea inperiorik sendoenek ere izan ez duten zerbaite da.



**SAN ROKE BARRIA**



2. fasea salgai

2 logela, **garajea barne**  
**235.000 €** <sup>-TIK</sup> <sub>+BEZ</sub>

3 logela, **garajea barne**  
**295.000 €** <sup>-TIK</sup> <sub>+BEZ</sub>

Erreserbatu hitzordua hemen:  
[www.sukia.com](http://www.sukia.com)

**SALMENTA BULEGOA**  
Astxiki Kalea, 1. Durango

**946 462 041**

**sukia**  
Zure etxean zaude Estás en tu casa